ASTELEHENEKO
# Goienkaria

2010eko urriaren 11 > Astelehena > VII. urtea > 293. zenbakia > 1,10 euro

Goiena 10 urte Komunikazio Zerbitzuak www.goiena.net TOKIKOM



"Argi daukagu zer izan nahi dugun eta orain politikariei dagokie erabakitzea"

**Juanjo Alvarez** UNEDeko zuzendari ohia > 8

**G2a** Ignazio Arregiren 'Eta orain zer' liburua

**DEBAGOIENA** Mundumira jaia maiatzeko azken asteburura atzeratu dute > 04

**ARRASATE** Iturbide egoitzak 700.000 euro pasa jasoko ditu Diputaziotik > 14

**BERGARA** Martokoko aparkalekuak amaituta egongo dira azarorako > 16

**OGASUNA** > HIZKUNTZA

## Errenta aitorpenak euskaraz

Udalek abiarazten dituzten kanpainak arrakasta izaten dabiltza > 07

**HEZKUNTZA** > IKASKETAK

## Irakasle ikasketak egin gura dituztenen kopuruak, gora

Mondragon Unibertsitateak Eskoriatzan duen fakultatean inoiz baino ikasle berri gehiago izan dituzte aurten irakasle ikasketen gaineko eskaintzan.

UNED-Bergaran, berriz, gaur egun ez dute irakasle ikasketarik, baina 2012-2013 ikasturtean ikasketa hori eskaini nahi dute. > 02-03

**ABELTZAINTZA** > FERIA

## Elosuan ganadua ikusgai

Bihar egingo dute, 09:00etan hasita, ganadu feria > 17



ARRAKASTATSUA Oñatiko korrikalari koadrila taldetxo horretan erritmoa jartzen, Eroskiko biribilgune parean, zapatu arratsaldean. XABIER URTZELAI

**ATLETISMOA** > LASTERKETA

# Arrasate-Oñati probak bultzada ederra jaso du

**300 KORRIKALARI** Zapatuko lasterketak arrakasta handia izan zuen ibarreko korrikalarien artean

**ASIER CUEVAS** Eibarko atleta izan zen azkarrena; nesketan Ainhoa Landinez izan zen onena > 22-23

Zapatuan egin zuten Arrasate-Oñati lasterketak erantzun ederra izan zuen korrikalarien partetik. Aspaldiko urteetako partehartze handiena izan zuen, 300 lagun batu ziren-eta irteera puntuan, Portaloian. Egutegiko aldaketak badu zeresana, korrikalari asko Behobia-Donostia proba prestatzen dabiltzalako.

Asier Cuevas probako errege bilakatu da, zapatuan proba hori bosgarren aldiz irabazita. > 22-23

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 02-07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-27
**Gurasoak** > 28
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Denborapasak** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39

**LANA** > PROTESTAK

## Ibarreko suhiltzaileak haserre

Gainontzeko suhiltzaileen lan baldintzekin bateratu nahi dituzte eurenak > 07

**TURISMOA** > ESKAINTZA

## Zubian, ordutegi berezia

Gureko turismo bulegoek eta museoek eskaintza berezia dute gaurko eta biharko. Pilareko zubia dela aprobetxatuz ibarreko monumentuek ateak zabalduko dituzte ohi baino ordutegi zabalagoan. > 04



**HEZKUNTZA** > IRAKASLE IKASKETAK

# Irakasle ikasketak egin gura dituztenen kopuruak gora egiten du urtero

**HUHEZIN 402 IKASLE** Mondragon Unibertsitateak Eskoriatzan duen fakultatean inoiz baino ikasle berri gehiago izan dituzte aurten irakasle ikasketen gaineko eskaintzan

**"BOKAZIOZKO" IKASKETAK** Lan baldintzak oso erakargarriak direla onartu badute ere, Huheziko irakasleek ziurtatu digute irakasle ikasketak "bokaziozkoak" direla



Ikasketa ikasketak egiten hasi den ikasle talde bat, Huheziko fakultatean.

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Irakasle izan gura dute gaur egun gazte eta horren gazte ez diren askok. Hasi berri den ikasturtean, Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzia Fakultatean (Huhezi) inoiz baino ikasle berri gehiago dituzte lehen mailan: 402 ikasle. Horietatik, 101ek Haur Hezkuntza gradua aukeratu dute; 105ek, Lehen Hezkuntzako gradua; 93k, 2. diploma; 30ek, Psikopedagogia; eta 21ek, Bigarren Hezkuntzako masterra.

Gorakada hori ez da bakarrik Huhezin gertatu; Euskal Herriko Unibertsitateak 1.100 plaza eskaini ditu aurten irakasle ikasketen gaineko bi graduetan, eta 1.760 lagunek eman dute izena hasi berri den ikasturtean. Izenemate gehien izan dituzten ikasketak izan dira horiek.

**Gazteak eta horren gazteak ez diren ikasleak dituzte Huhezin; krisiak eragina izan duela diote irakasleek**

**1976. urtean sortu zen Irakasle Eskola moduan, umeak euskaraz formatzeko zegoen beharra asetzeko**

**ARLO "ERAKARGARRIA"**

Eskaeren gorakadaren gainean jardun dugu Huhezi fakultateko irakasle Arantza Mongelos eta Aitziber Arregirekin. Azken horren esanetan, "administrazio publikorantz begira daudenendako, oso arlo erakargarria da hezkuntzarena; Eusko Jaurlaritzak, gainera, mezuak bidaltzen ditu lana egongo dela esanez; datozen urteotan langile asko erretiratuko direla eta lana egongo dela argudiatzen du, bai publiko eta baita pribatuan ere".

Dena dela, lanbide horren lan baldintzak oso erakargarriak badira ere, irakasleek gaineratu dute hezkuntzarekin lotutako ikasketak "bokaziozkoak" direla. Arregiren arabera: "Iaz inkesta bat egin genuen lehen mailako ikasleen artean eta guztiek zuten irakasle ikasketak lehenengo aukera moduan. Haurrak gustatzen zaizkie eta asko aisialdi eta euskara elkarteetan ibili dira". Horren harira, ikasketak egiten hasi aurretik ikasle askok umeekin zelan moldatzen diren probatu dutela nabarmendu dute.

**KRISIAK ERAGINDA**

Ikasleen adinari dagokionez, denetarik dagoela diote. Mongelosen esanetan: "Gazteak gehiengoa badira ere, bestelakoak ere baditugu. Batzuk 25 urtetik gorakoendako unibertsitatean sartzeko aukerarekin daude. Krisia dela-eta, lanik ez dagoenez, ikasten jarraitzea erabakitzen dute".

Bestalde, gizartearen beharrak azkenaldian asko aldatu direla eta eskaeren gorakada horrekin lotuta dagoela ere aipatu dute. Azken horren harira, gogorarazi dute lan esparrua asko zabaldu dela; lehen, maisu-maistra ikasketak zeuden. Arregiren esanetan, "lehen, irakaslea zen klasean zegoena eta eskolak ematen zituena; orain, eskaintza askoz zabalagoa da, eskolaz kanpoko jardueretan dauden asko ere gurekin ikasitakoak dira". 0-6 etapa ere hor dagoela gogorarazi dute.

**1976A EZKERO**

Urteak daramatzate Eskoriatzan irakasle ikasketak ematen. 1976an sortu zen Irakasle Eskola izenarekin. Mongelosek gogorarazi du fakultatea sortu zela garai hartako gizartean umeak euskaraz formatzeko zegoen beharra asetzeko. 30 bat ikaslerekin hasi zuen ibilbidea. Hiru urte geroago, lehen promozioa irten zen; 39 irakasle irakasle diplomarekin.

Hasierako urte haietan ikasketa tradizionalean oinarrituta zego-

URRUTIKO HEZKUNTZAKO UNIBERTSITATEA

## UNED-Bergaran 2012-2013 ikasturterako

UNED-Bergaran gaur egun ez dute irakasle ikasketarik, baina aspaldditik eskaintzekotan dabiltzala jakinarazi zigun uda partean hango pedagogiako irakasle Luis Mari Txabarrik: "Esaten da 2012-2013 ikasturtean hasiko direla eskaintzen. Data zehatzik ez badaukagu ere, berehalakoan emango dugu. Jendea kezkati agertzen da horrekin eta askotan eskatu diguten ikasketa da". Horren harira, gaineratu du eskaera egon badagoela igarri dutela, eta eskatzaileak ez direla 18 edo 20 urteko gazteak, zaharragoak baizik. Txabarrik bitxikeria moduan kontatu zigun bat baino gehiago joan izan dela galdezka beste gradu bateko ikasgaiez, gero irakasle ikasketak egin ahal izateko: "Egokienak zeintzuk diren jakin nahi zuten, gero irakasle izateko ikasten hasteko eta lana aurreratuta izateko".

ZERGATIK AUKERATU DITUZU IRAKASLE IKASKETAK?



**Markel Urtubi**
Gernika

"Lagun baten amak esan zidan eta matrikula Eskoriatzan egitea erabaki nuen. Irakasle ikasketak gustuko ditut, irakaslearen lana garrantzitsua da; denon etorkizuna haren eskuan dago".



**Leire Sagastagoia**
Durango

"Umeak gustuko ditut. Begirale ikastaroa egina daukat eta ikastolako autobusean arduradun moduan ere jardun dut. Heziketa Berezia gura dut egin, ume horiek laguntza behar dutelako".



**Erik Vadillo**
Aretxabaleta

"Umeekin ibili naiz beti, monitore lanetan, baita futbolean eta udalekuetan. Lagun batzuek eginak dituzte ikasketak eta Huhezin izena emateko animatu ninduten. Gainera, etxetik gertu dut".


GOIENKARIA

en ikasturtea; hau da, irakaslea klasera joaten zen irakastera. 1997an, Mondragon Unibertsitea sortu zen eta handik gutxira, Mendeberri proiektuarekin buru-belarri sartu ziren hiru fakultateetan. 2000. urtean, curriculumari bueltak ematen hasi ziren. Mongelosek gogorarazi du Europa mailan unibertsitateetan zer gertatzen ari zen aztertu zutela eta horren harira ikerketak egin zirela. Irakasle, ikasle eta gurasoen beharren gainean azterketa egin zuten, irakasle profilari egokitzeko. Horretarako, irakasle ikasketa guztiak hartu beharrean, Haur Hezkuntza hartu zuten oinarri moduan.

Hezkuntza proiektu berriaren helburua da ikasleek gaitasuna izatea heziketa onartzeko, taldean lan egiteko, proiektuak zuzentzeko eta erabakiak hartzeko. Edukien tratamendua ere aldatzen da. Diziplina arteko planteamendu batean oinarritzen da, eta horrek jakintza-alor ugariren arteko harremana sustatzen du. Lan egiteko modu berriak ere proposatzen ditu. Maisu-eskolak gutxitzen dira eta talde txikietan eginiko lana heziketa proiektuaren zutabe nagusi bihurtzen da.

**ERAIKIN BERRIA**

Bestalde, ikasle gorakada horrek Eskoriatzako eraikina txiki geratzea eragin du, eta horri aurre egiteko, Aretxabaletan Tubos lantegia zena egokitzen hasi dira. Datorren ikasturterako eraikina inauguratu nahi dute. Oraindik zehazteke dago Huheziko ze ikasketa eskainiko dituzten han.

Arantza Mongelos eta Aitziber Arregi > Irakasleak

## "Datorren urtean Hezkuntza Artistikoa eskainiko dugu"

**M.B.** > ESKORIATZA

**Datozen lerroetan egungo eskaintzaz eta Mendeberri proiektuaz berba egin digute Aitziber Arregi eta Arantza Mongelos irakasleek.**

**Boloniak aldaketak ekarri ditu. Zer eskaintzen duzue egun hezkuntza zientziekin lotutako ikasketetan?**

Aitziber Arregi: Batetik, irakasle ikasketetako graduak: Haur eta Lehen Hezkuntza. Bakoitzak bere ibilbidea dauka. Haur Hezkuntzan (0-6 urte), Haur Hezkuntza bera eta Atzerriko Hizkuntza daude; eta Lehen Hezkuntzan (6-12), Lehen Hezkuntza, Heziketa Fisikoa, Atzerriko Hizkuntza eta Hezkuntza Berezia daude. Azken horren harira, datorren ikasturtean, ziurrenik, Hezkuntza Artistikoa eskainiko dugu. Gradu-ondoetan, gaurkotasunarekin lotutakoak ditugu.

Horrez gain, diplomatura zaharrak daude; aurtengoak dira azkenak. Psikopedagogia lizentziatura ere badaukagu, bigarren ziklo moduan.

**Zelan eragiten dio Mendeberri proiektuak irakasle ikasketak egiten ari diren ikasleei?**

Arantza Mongelos: Ikaslea ardatz bihurtu dugu. Lehen, dena oinarritzen zen irakaslean. Gaur egun, ikasketa prozesuaren protagonista ikaslea da. Irakasleak laguntzeko gaude, hainbatetan aditu moduan sartzen bagara ere.


M.B.

ZERGATIK AUKERATU DITUZU IRAKASLE IKASKETAK?



**Arkaitz Loriz**
Gasteiz

"Gasteizen sartzeko notarik ez neukan eta Huheziz oso ondo hitz egin didate. Maila handiagoa zela eta horretan parte hartzea gustatuko litzaidake. Aurretik monitore moduan jardun dut. Lehen Hezkuntza egingo dut".



**Jone Ojea**
Bergara

"Umeak oso gustuko ditut. Adin horretan heziketa garrantzitsua da eta horretan parte hartzea gustatuko litzaidake. Aurretik monitore moduan jardun dut. Lehen Hezkuntza egingo dut".



**Ane Morillas**
Bergara

"Begirale moduan ibili naiz eta umeekin egotea gustuko dut. Udan, lauzpabost urteko haurrekin ibili nintzen eta asko gustatu zitzaidan. Asmoa da ikasketak amaitzea eta eskola batean lana bilatzea".





Arantzazuko denda jendez beteta, *souvenir*-ak erosteko asmoz. JOSETXO ARANTZABAL

**TURISMOA** > ESKAINTZA

# Pilareko zubian ordutegi berezia izango dute bulegoek

Bisita gidatuak egingo dituzte gaur eta bihar; asteburuan eguraldiak ez du lagundu turismoa egiteko

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Gureko turismo bulegoek eta museoek eskaintza berezia dute gaurko eta biharko. Pilareko zubia dela aprobetxatuz ibarreko monumentuek ateak zabalduko dituzte ohi baino ordutegi zabalagoan.

Oñatin esaterako, gaur ohiko ordutegia izango dute; eta, bihar, zabalduko dute goizez, 11:00etatik 14:00etara. Bisita gidatuei dagokionez, 12:30ean izango da bisita. Erakutsiko dituzte Sancti Spiritus Unibertsitatea eta San Migel parrokia.

ESANAK

## "Telefono dei asko jaso ditugu bulegoan eta uste dugu jendea etorriko dela gaur eta bihar bitartean bisitak egitera"

**Edurne Urteaga** > Oñatiko turismoa

Arantzazun, bisita gidatuak egingo dituzte 10:30ean, 11:30ean, 12:30ean, 16:00etan eta 17:00etan. Aldez aurretik deitzea komeni da. Arrikrutzen, bisita ordua hartzeko deitu 943 08 20 00 telefonora.

Bergarako turismo bulegoan erdigune historikoa ezagutzeko bisita gidatuak egingo dituzte. Gaur goiz eta arratsalde egongo da zabalik; eta, bihar, 10:30etik 13:30era. Leintz Gatzagako gatz museoan bihar izango dira bisitak, 12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz.

**ASTEBURUAN, EGURALDI TXARRA**

"Beharbada eguraldiagatik izan da, baina jende gutxi ibili da", esan dute Bergarako turismo bulegoan. Madrileko eta Kantabriako talde bana izan dute.

Oñatin, zapatuan jende dezente izan zuten: "Euskadi Xtrem proba eta Arrasate Oñati lasterketa izan dira eta jendea etorri da". Gaineratu dute, telefonoz jende askok deitu duela eta egun hauetarako jendea espero dutela.

>KULTURA

### Mundumira jaia maiatzeko azken asteburuan izango da

Uztailean iragarri zuen Debagoieneko Mankomunitateak 2011ko Mundumira jaia Elgetan izango zela; data ere aurreratu zuten eta orduan esandakoaren arabera, maiatzaren 21 eta 22an ospatuko zen jaia. Orain astebete atzeratu dute, izan ere, hasierako datan 2011ko foru eta udal hauteskundeak egingo dira. Hala, maiatzaren 28 eta 29an egingo da datorren urtean zazpigarren edizioa beteko duen Mundumira.

>EKONOMIA

### Hilaren 13, 14 eta 15ean lanuzteak metaleko enpresetan

ELAk eta LABek deituta, greba egingo dute asteazken, ostegun eta ostiralean metal arloko Gipuzkoako hainbat lantegik. Sindikatuek adierazi dutenez, eskatzen dutena da hitzarmen berria negoziatzeko egun indarren dagoen hitzarmena aintzat hartzea. Besteak beste Oñatiko Garay, Bergarako Arcelor eta Eskoriatzako Tesa lantegietako langileen batzarrek egin dute bat grebarekin.






Maria Dolores Rivera Arrasaten hizlari izan genuen eguaztenean.

**Maria Doris Rivera** > Kolonbiako Asodemuc elkarteko kidea

# "Gatazka egoeratan besteen hutsak ordaintzen ditugu emakumeok"

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

**Arrasateko Ahotsak elkartearen eskutik, Maria Doris Rivera kolonbiarrak *Gatazka armatuaren testinguruak* izenburuko hitzaldia egin zuen eguaztenean Kulturaten. Heriotza mehatxuak tarteko Kolonbiatik alde egindakoa da Rivera eta bost seme-alabez gain, harekin dira iloba bat eta biloba bat. Kolonbiara itzuli bitartean, giza eskubideen alde lanean jarraitzen du.**

**Iheslari politikoa zara eta mehatxuak jaso omen dituzu.**

Giza eskubideen defentsa egiteagatik mehatxatu naute, bai, eta jazarpen politikoa ere jaso dut UP (Union Patriótica) alderdiko kide izateagatik. UP 1986. urtean sortutako alderdia izan zen eta 1988an ekin zioten haren kontrako jazarpenari, 1992 aldera erabat suntsitu zuten arte. Aldaketa ideiekin goraka zetorren alderdia zen eta eskumak agindu zuen haren suntsiketa. 500 bat kide geratuko gara gaur, kartzeletan dagoen jendea eta erbesteratutakook kontuan izanda.

**Zein da egoera Kolonbiako egoera gaur?**

Gatazka armatua bizi dugu Kolonbian, nahiz eta gobernuak gatazkaren ondorengo etapan gaudela esan. Indar publikoaren, gobernuaren eta legez kanpo diren taldeen arteko borroka hor dago eta datuak hor daude: behartutako desagerpenak, nekazarien hilketak gerrillako kide diren akusaziopean, hobi komunean lurperatutakoak... Egoera ez da arrosa kolorekoa, gobernuak esaten duen moduan.

> "Gobernuaren eta legez kanpo diren taldeen arteko borroka dago Kolonbian gaur"

**Emakumeok gatazka egoeratan jasaten duzuen egoera salatu duzu.**

Gerra harrapakin bezala erabiltzen gaituzte, ama, emazte, alaba edo arreba izateagatik, emakumea izateagatik. Gu geratzen gara etxea eramaten eta besteen hutsak ordaintzen.

**Zein irtenbide ikusten diozu Kolonbiako egoerari?**

Gobernuak gatazka egoera onartu eta legez kanpo dabiltzan taldeekin elkarrizketari ekitea. Beharra duten departamentuetan eta nekazaritza guneetan inbertsioak ezinbestekoak dira.

## Kolonbiako indar publikoen gehiegikeriak salatzen eta hango egoera ikustarazten

Maria Doris Riverak hiru urte daramatza ASODEMUC elkartean, indar publikoen gehiegikeriak fiskaltzan salatzen. Kolonbiako emakumeen giza eskubideen defentsan eta bakearen alde diharduten Asodemuc elkartean. Orain dela bi hilabete iritsi zen Kolonbiatik eta eguaztenean Arrasaten hitzaldia egin ondoren, Bartzelonara itzuli zen Rivera. Katalunian, errefuxiatuen laguntzarako CEAR elkartearen eta nazioarteko kooperazio bultzatzen duen ACP elkartearen babesa daukate. Jasotzen duten laguntza ekonomikoa baino, bereziki giza laguntza eskertzen du Riverak; "Kolonbiako egoera ikustarazteko, zabaltzeko aukera daukagu orain eta etorkizunari bakea baino ez diot eskatzen".

**etxeko leihotik**



**Usoa Agirre** > uagirre@goiena.com

# Ze zaila sakelakoaren konpainiaz aldatzea...

Poltsikoko telefono konpainiaz aldatu dut. Ez nuen telefono berririk behar, tarifa onak eskaintzen zizkidan konpainia behar nuen. Alde batean eta bestean asko begiratu ostean, oso ezaguna ez den baten alde egin dut. Ez dakit nola joango zaidan aldaketa, baina lehen zerbitzu txarra prezio altuan baldin banuen, orain zerbitzua txarra baldin bada prezio txikian izango da behintzat.

Konpainiaz aldatu nahi izanez gero segituan konturatzen dira zure lehengo konpainiakoak eta *izugarrizko eskaintzak* egiten dizkizute, azken teknologia duen poltsikokoa eskainiz. Kontu jakina da telefono konpainiek tarifa garestiak dituztela Espainian eta, besterik ezean, horiek ordaintzen jarraitzen dugu. Gainera, merkatuko azken gailua eskaintzen badigute, zer inporta dute tarifek!

> "Zerbitzu txarra baldin bada prezio txikian izango da behintzat"

Nik konpainiaz aldatu dudanean banuen beldurra eskaintza ezin hoberik egingo ote zidaten konpainia zaharrekoek, ezetzik esan ezin den horietakoa. Baina ez. Horretan eskertu nahi nituzke Euskaltelekoak, ez dutelako inolaz ere ahaleginik egin, hainbeste urte bezero izan ondoren, oraindik ere beraiekin geratzeko. Ezetz esateko zailtasunak izaten ditut batzuetan eta eskerrak ez didaten Movistar, Orange edo Vodafonetik deitu *eskaintza ezin hobea* eginez. Ea zer moduz doakidan abentura konpainia berriarekin.

**> Interneteko eskaintzak ere aztertu beharrekoak dira. Iragartzen dituzte 20 megako konexioak, 50ekoak... Horrelakoren batengatik informazioa eskatzen dudan bakoitzean erantzun bera izaten dut: "ez da zure etxera iristen".**

**> Poltsikoko telefonoa eta Internet. Beti izaten dugu kexaren bat biei egiteko: garestiak direla, zerbitzu kaskarra dutela, ez dutela agintzen duten guztia eskaintzen... Hala ere, horiek gabe nola biziko ginateke orain? Zaila da imajinatzea.**

**LANKIDETZA** > HITZARMENA

# Mondragon Unibertsitatea, laugarren sektorearen alde

Innobasque eta eta Sport Mundirekin lankidetza hitzarmena sinatu du

**E.M.** > ARRASATE

Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziak, Mondragon Unibertsitateak eta Sport Mundik lankidetza hitzarmena izenpetu zuten eguaztenean laugarren sektorea sustatzen eta gizarte-enpresaren sorrera bultzatzen elkarlanean aritzeko. MUren partetik Lander Beloki Enpresa Zientzien Fakultateko dekanoak hartu zuen parte sinatze ekitaldian, Hernanin.

Hitzarmenaren helburua erakundeen arteko lankidetza-esparrua ezartzea da berrikuntzaren eremuko ekimenak, mezuak, estrategiak eta jarduera-planak bat egiteko.

Lankidetza-esparru horren emaitza gisa, atzo Donostiako Zurriolako hondartzan ospatutako Sport Mundi Eguna-Surf Edition delakoaren garapenean parte hartu dute hiru erakunde horiek.

Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba

# Atera etekina txartelari!




## Abantailak

- Goienkaria astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak... eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

**Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu.**

## Deskontu bereziak

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

**BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)**
- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- **-%20** elikagai-intolerantzia proban.
- **-%10** mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- **-%10** fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

RENAULT AUTOBERRI

**ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA**
- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa 20 euro.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

IKER SUKALDEAK

**ARRASATE/OÑATI**
- Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

Barceló BIDAIAK

**BERGARA/ARRASATE**
- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA) AVIA

**ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)**
**ARRASATE**
- **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
- **-%2** dendako produktuetan.

MONDRAGON LINGUA

**ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)**
- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan.

naren FISIOTERAPIA ZENTROA

**ARETXABALETA**
- **-%15** zerbitzu guztietan.

CLINICA DENTAL BERGARA

**CLINICA DENTAL BERGARA**
**BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)**
- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

TXURI-URDIN Donostia

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.

AQUARIUM DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

**DONOSTIA**
- Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

**BERGARA**
- **-%15** inskripzioa ordaintzean.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

**Enpresendako: Zure enpresa Goiena Klubean eskaini nahi baduzu jarri gurekin harremanetan.**

**Telefonoa: 943 25 05 05 | Posta-e: *kluba@goiena.com***

**OGASUNA** > 2009KO KANPAINA

# Debagoienean egindako errenta aitorpenen %16a, euskaraz

Udalek errenta aitorpena euskaraz egiteko hirugarren kanpaina orain arteko arrakastatsuena izan da

Antzuolan aurkeztutako aitorpenen %27a izan da euskaraz

**TXOMIN MADINA** > ARRASATE
Hirugarren urtez jarraian, Debagoieneko zortzi udalek errenta aitorpena euskaraz aurkezteko kanpaina egin dute aurten, eta emaitzei dagokienez, berau izan da orain arteko arrakastatsuena. Izan ere, 2009 urteari zegozkion 37.293 errenta aitorpen aurkeztu dira aurten ibarrean apirila eta ekaina artean, eta horietatik 4.800 inguru euskaraz izan dira, %16a hain zuzen ere. Iaz baino hiru puntu gehiago da hori eta 2007ko errenta aitorpenaren kanpainan baino zazpi puntu gehiago. 2000ko datuei begira jarrita, aldea nabarmenagoa da: orduan 1.088 izan ziren euskaraz aurkeztutako errenta aitorpenak. Hamarkada bakarrean, beraz, laukoiztu egin da euskarazko errenta aitorpenen kopurua.



Aurtengo kanpainaren kartela. GOIEN

**GEHIEN, ANTZUOLAN**
Datuak herrika aztertzen hasita baina, Debagoieneko herrien arteko ezberdintasunak nabarmenak dira. Gauzak horrela, Antzuolan eta Elgetan aurkeztutako errenta aitorpen laurdena inguru euskaraz izan dira: Antzuolan %27a eta Elgetan, %22a. Esan behar da gainera, euskarazko aitorpenen hazkunde handiena ere, bi herri hauetan izan dela: 2007an baino bederatzi puntu gehiago Antzuolan; eta Elgetan, hamaika.

Muturraren beste aldean, Eskoriatza eta Arrasate daude. Eskoriatzaren kasuan, %9a izan dira euskaraz aurkeztu diren aitorpenak; Arrasaten, %10a. Azpimarratzekoa da baina, gehiago edo gutxiago, baina urtetik urtera, herri guztietan egin duela gora euskarazko errenta aitorpenen kopuruak.

Datu hauek guztiak Debagoieneko udalek eman dituzte jakitera, eta adierazi dutenez, igoera pozgarria da, euren esanetan, apurka-apurka bada ere, gero eta gehiago direlako euskara aukeratzen duten herritarrak.

### Euskaraz egindako errenta aitorpenak

| | 2007 | 2008 | 2009 |
|---|---|---|---|
| Antzuola | %18 | %25 | %27 |
| Aretxabaleta | %10 | %12 | %14 |
| Arrasate | %7 | %9 | %10 |
| Bergara | %10 | %12 | %13 |
| Elgeta | %11 | %19 | %22 |
| Esakoriatza | %6 | %7 | %9 |
| Leintz-Gatzaga | %11 | %14 | %17 |
| Oñati | %8 | %11 | %14 |
| **Debagoiena** | **%9** | **%13** | **%16** |

ITURRIA: DEBAGOIENEKO UDALAK

**Mari Carmen Arrieta** > Eskoriatzako euskara teknikaria

## "Gure itxaropena gazteak dira, aitorpena lehen aldiz egiten dutenak"

**T.M.** > ARRASATE
***Nora begira zaude? Aukeran euskaraz!*** **leloa aukeratu dute aurten Debagoieneko udalek errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpainarako. Eskoriatzako Udaleko Mari Carmen Arrietak egin digu aurtengo emaitzen inguruko balorazioa**

**%16ak egin du aurten errenta aitorpena euskaraz. Nola baloratzen duzue kopuru hori?**

%16a ez da asko, baina kontutan eduki behar da guk kanpaina hiru urtetan egin dugula eta hiru urte horietan kopurua gutxi gora behera bikoiztu egin dela. Argi dago kanpainak berak baduela eraginen bat, eta orain bezala edo beste era batera, baina jarraituko dugu. Ea ehuneko hori igotzea lortzen dugun.

**Errenta aitorpena nahiko kontu teknikoa da. Esango zenuke horrek beldurtu egiten gaituela euskaraz egitera?**

Bai, hori horrela da, ohituta gaude terminologia hori guztia gazteleraz entzun eta erabiltzera. Ez da terminologia erreza. Gure itxaropena erabiltzaile gazteak dira, errenta aitorpena lehenengo aldiz egiten dutenak ekartzea euskarara eta eurak ohitzea.

**Zer egin behar da errenta aitorpena euskaraz egiteko?**

Esan behar da lau modu daudela errenta aitorpena egiteko, eta lauretan dagoela euskaraz egiteko aukera. Urrats xume bat ematea besterik ez da gainera. Esaterako, internet bidez egin nahi badugu bi aukeren artean klikatzea, eta era mekanizatuan egiteko, bulegoan dagoenari esanda.

**SUHILTZAILEAK**

## Borrokan daude lan baldintza hobeen alde

Gipuzkoakoen egoera gainerako diputazioetakoa baina okerragoa da

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI
Gipuzkoako Diputazioko suhiltzaileen kolektiboa borrokan dabil lan baldintza hobeen alde. Oñatiko suhiltzaile-etxean irakur daitekeen pankartan jartzen du: "Markel Olano: Reala primeran suhiltzaileak terzeran". Hain zuzen, alderaketa horrekin eskatu nahi dutena da euren baldintzak hobetzea. Izan ere, Diputazioko suhiltzaileen baldintzak erkidegoko beste diputazioetako eta udaletako suhiltzaileen baldintzak baino eskasagoak dira: " Eskatzen dugu txanda bakoitzean langile gehiago izatea; baldintza ekonomiko hobeak; eta, lan baldintza hobeak", dio suhiltzaileen bozeramaileak.

**ZORTZI SUHILTZAILE-ETXE**
Diputazioak kudeatzen ditu zortzi suhiltzaile-etxe. Donostiakoak Udalarenak dira eta horiek ez daude borrokan.

2010eko ekainean Diputazioak lan baldintzak aldatu zizkien; hala, euren baldintzak eta gainerakoenak aztertu ostean konturatu dira baldintza txarrak dituztela, eta gainera hainbat lan muxu truk egiten dituztela. Gaur egun, Diputazioarekin harremanetan daude; baina, negoziazioak luze joz gero, protestak egingo dituzte.

**LANA** > SEGURTASUNA

# Eraikuntzako lan istripuen arrazoia, kontzientziazio falta

LOTU programaren barruan ibarrean egindako azterketaren emaitzak aurkeztu dira

**T.M./I.G.** > ARRASATE
Eraikuntzako lanetan izan ohi diren altueretako goitik beherako erorketak murrizteko abiarazi zuten Eusko Jaurlaritzak, CCOOk, UGTk eta Confebaskek LOTU programa.

Azken bederatzi hilabetetan, Debagoieneko 24 obra bisitatu dituzte, eta bertan lortutako emaitzak eman dituzte jakitera. CCOO sindikatutik orokorrean balorazio positiboa egin dute, epe horretan heriotzarik egon ez delako. Baina hainbat arazo ere detektatu dira besteak beste, homologatu gabeko babes sistemak, babestu gabeko zuloak, dokumentazio falta obretan eta egoera txarrean dauden eskailerak.

**KONTZIENTZIAZIO FALTA**
Programaren arduradun David Velizek azpimarratu duenez arazo nagusiena kontzientziazio falta da, bai enpresarien eta baita langileen artean ere. "Enpresariek, segurtasuna kostu bat bezala ikusten dute eta hori horrela den bitartean, obretako segurtasunean galerak egongo dira" adierazi du Velizek. gaineratu du obra batzuetan langileei formazio falta zaiela eta askotan, prebentzio falta, langileena dela: "Segurtasuna beharrean, azkartasuna eta erosotasuna hobesten dute".

Hori aldatzea beharrezkoa dela aldarrikatu du LOTU programako ordezkariak, bestela, bere esanetan, istripuak eta heriotzak gertatzen jarraituko dutelako. Segurtasuna areagotzeko, arlo guztietan sentsibilizazio lan handia egiteko dagoela gaineratu du.


CCOOko Jesus Uzkudun eta LOTUko David Veliz, emaitzen aurkezpenean. I.G.

Nostalgiaz eta maitasunez egiten du berba Juanjo Alvarezek, Azkeneko 14 urteotan Bergarako UNEDeko zuzendari izan denak. Irailean utzi zuen kargua eta Iñaki Espartzak hartu dio lekukoa. Gustura dago egindako lanarekin. 1.000 ikasle inguru zituen etorri zenean eta gaur egun ia 2.000 ditu Bergarako UNEDek. Espazioa handitzea beharrezko duela dio.

**Juanjo Alvarez** > UNEDeko zuzendari ohia

# "Argi daukagu zer izan nahi dugun eta orain politikarei dagokie erabakitzea"

ENEKO AZKARATE > BERGARA

**Juanjo Alvarezek (Zumaia, 1964) hamalau urte egin ditu Bergarako UNEDeko zuzendari. Europar Zuzenbidean katedraduna da EHUn, eta Donostiako fakultatean dihardu. Horretaz gain, Donostiako Cuatrecasas abokatuen bulegoan ere badihardu. Radio Euskadin iritzi emaile ibilia da eta orain Onda Vascan eta *Noticias de Gipuzkoa*-n ari da. UNEDeko kargua utzi berri du.**

**Iritzi emaile ospetsu bihurtu zara...**

Dibertimendua da niretako, egunerokoa ahazteko modu bat. Jakina, egunean egotea eskatzen dizu, baina oso gustura egiten dut. Orain, disgustua hartu berri dut; izan ere, Radio Euskadin behartu egin ninduten aukeratzera edo Radio Euskadi edo Onda Vasca, ze iaz bietan aritu bainintzen. Badirudi ez direla bateragarriak, eta amorrua eman dit. Azkenean, Radio Euskadi uztea erabaki dut, zazpi urte egon ostean, besteak beste, Xabier Lapitzen oso laguna naizelako.

**Astia nondik ateratzen duzu?**

Katedrarekin ikertzen, unibertsitatean eskolak ematen, abokatuen bulegoan, hedabideetan… bueno, antolaketa kontua da. Bestalde, uste nuen UNEDeko zikloari amaiera ematea tokatzen zitzaiola. Aurrerantzean, familiari gehiago eskainiko diot. Egunotan, nostalgiaren eta ilusioaren artean nabil. Gogoan daukat Bergara, baina ilusio handia daukat proiektu berrietan.

**Ez dago beste arrazoirik UNEDeko kargua uzteko?**

Ez. Jende askok galdetzen dit, baina iritsi da uzteko unea eta utzi egin dut. Egia da, halere, UNEDeko eraikina, Seminarioa, berritzen dabiltzala orain, eta obraren erdian uztea, bada, akaso ez da egokiena, baina halaxe gertatu da. Bideratuta dago eta erreleboa hartuko didan Iñaki Espartza oso egokia da posturako.

**UNED hartu zenuenetik utzi duzunera arte zertan aldatu da?**

UNEDen antolakuntzaren barruan, Bergarako zentroa ez da aldatu gauza batean: zentro garrantzitsua da, aparta, pertsonalitate handikoa… Ailegatu berritan, 32 urterekin, egin behar izan nion aurre zentroaren eraldaketa sakonari. UNEDek etorkizunik ez zeukala aipatzen zen…. Orain, ostera, egonkortuta dago erabat. 1.800 ikasletik gora ditugu, euskal unibertsitatearen sisteman erabat itsatsi gara, baita Gipuzkoako hezkuntzan ere. Ikastetxearen etorkizuna ziurtatu dugu behin betiko. Unibertsitate presentziazkoa da gurea, baina ez die muzinik egiten teknologia berriei.

**Zer falta zaio Bergarako UNEDi zeuk amestutako modukoa izateko?**

Lantalde bikaina dauka, baina barne antolaketa hobea ere beharko luke. Zelan lortu gure ikasleengandik gertuago egotea. Sekulako meritua dauka UNEDeko ikasleak. Bestetik, erakunde guzti-guztiek sinistu beharko lukete Bergarako UNEDek funtzio bat duela. Dirulaguntzetatik haratago. Gehiago inplikatu behar dute erakundeek. Neurri batean, umezurtz sentitu gara batzuetan.

**Eusko Jaurlaritza Patronatuko kide izan daiteke aurki.**

Bai, kontu hori bideratuta dago, baina lozorroan dago une honetan. UNEDek bi proiektu estrategiko dauzka: bata, Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea Patronatuan; eta bestea, egoitza berria. Non kokatu behar dugu izan nahi duguna izateko eta behar moduan hazteko? Esan behar da Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen dituela EAEko UNEDeko hiru zentroak, Portugalete, Gasteiz eta Bergarakoak. Gure kasuan, aurrekontuaren %14 estaltzen du Jaurlaritzaren laguntzak, baina ez da Patronatuko kide. Eta oso garrantzitsua izango litzateke bertan egotea, besteak beste, lehen mailan jokatzeko aukera emango ligukeelako eta, esaterako, euskara plan bat aurkeztu eta aurrera eroatea ahalbidetuko lukeelako.

**Egoitzarenak ez dizu penarik ematen?**

Une honetan, Errege Seminarioan obra garrantzitsuak egiten dabiltza. Etorkizunean, hartzen den erabakia hartzen dela, eraikina egonkortuta geratuko da. 1,5 milioi euro kostatu da obra, ez 6 milioi euro. Egia da, halere, lanek gorabeherak sortu dituztela eta hilabetez atzeratu dela ikasturtea. Abendurako UNEDek izango du egoitza egokiagoa, baina, halere, behin betiko obra egitea geratuko da, orain dagoen tokian edo Arrizuriagan. Batean zein bestean, aurre egin beharko diegu obrei. Erabaki politikoa da eta etsigarria da ia erabateko adostasuna lortu denean oraindik horrela egotea.

**Permuta egiten ez bada eta UNED dagoen tokian geratuko balitz, orain egiten dabiltzan obrekin nahikoa litzateke?**

Ez. Argi dago ezetz. Jende guztiak daki hori. Denok dakigu UNED ez dela kabitzen oraingo tokian eta UNEDen etorkizuna bermatzeko beharrezkoa dela espazioa handitzea eta egokitzea. Argi daukagu zer izan nahi dugun handitan eta orain politikariei dagokie erabaki egokiak hartzea.

**Geroago eta ikasketa gehiago eskaintzen dituzue *on line*. Hortik ondorioztа dezakegu UNEDek ez duela handitu beharrik?**

UNED inoiz ez da izango UOC edo Unibertsitat Oberta de Catalunya. Besteak beste, eta lehenbizi, ia 2.000 ikasle ditugulako eskoletara datozenak. Bigarrenik, tutoretza lanak, gure estatutuen arabera, bermatu behar direlako. Hirugarren, Bolonia delaeta ikastetxean bertan ebaluaketa presentziazkoak egin behar direlako etengabe. Laugarrenik, *on line* metodologia osagarri delako eta ez baztertzailea edo bakarra. Teknologia berriak eta ikasleekiko gertutasuna bateragarriak eta beharrezkoak dira. Espazio txiki gehiago behar ditugu. Kontuan izan behar da 1.000 ikasle genituela orain dela 14 urte eta gaur egun 1.800 izan ziren iaz eta geroz eta gehiago direla.

**Matrikula kopurua asko hazi da, hortaz.**

Bai; ikasle kopuruari dagokionez, bigarren unibertsitatea gara Gipuzkoan.

**Zenbat karrera eskainiko ditu aurten?**

33 gradu. Aurten Boloniara gradu guztietan egokitu gara. Bergaran 80 tutore dauzkagu, baina ikasle guztiei bermatuko diegu, nahi badute, tutore bat. Horretarako, elkarlanean jardungo dugu iparreko unibertsitateek: Euskal Herrikoez gain, Zaragozakoek, Kantabriakoek…

**Zerbait esan nahi diezu bergararrei?**

Asko gogoratzen dut Bergara, kariño handiarekin. Nabarmendu nahi dut UNED Bergarara ekartzeko sorrerako pertsona haiek egin zuten ahalegina, modu eta espiritu kooperatiboz. Jose Luis Elkororen lana azpimarratu nahi dut. Harro egoteko moduan daude bergarararrak: ilustrazioa eta Azkoitiko Zalduntxoak hasi ziren toki berean jarraitzen du heziketa zentro honek. Gaur egun, dena hiriburuetan kokatzeko joera dagoelako, zaila izango litzateke UNED Bergarara ekartzea.



Juanjo Alvarez, Bergarako UNEDeko lehengo bulegoan. ENEKO AZKARATE

ETORKIZUN OPAROA

**"Bergarako UNED euskal unibertsitatearen sisteman erabat itsatsi da"**

UNED-EN ETORKIZUNA

**"Denok dakigu UNED ez dela kabitzen oraingo tokian eta beharrezkoa dela espazioa handitzea"**

**goiena.net/bideoak**
Elkarrizketa osoa, webgunean.



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

**Berezitasunak**
- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita**



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
*www.errekajatetxea.eu*

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

**Igande gauean eta astelehenetan itxita**



## Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56
*www.etxeaundi.com*

**Eskaintza**
- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

**Egunero zabalik**

Larrinetxe
JATETXEA

## Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 22 15
*www.larrinetxe.com*

**Eskaintza**
- Aukera zabaleko karta eta astebukaeretan menu bereziak
- Sasoiko okelak, arrainak eta etxeko postreak
- Bokatak eta plater konbinatuak ordu guztietan.

**Martitzenetan itxita**

*Jatetxe Gida*



## Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 33. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55
*www.restaurantelasa.com*

**Eskaintza**
- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Eguneko menu bereziak asteartetik ostiralera.
- Kongresuetarako aretoa.
- Parking.

**Gipuzkoako bankete-jatetxe onenaren Mas Gastronomia 2009 saria.**



## Unzueta sagardotegia

Zabola z/g /ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**
- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Eguneko menua
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataio, jaunartzeak eta kintadak

**Egunero zabalik**



## Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI
943 78 35 45

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

**Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

**Igandeetan itxita**



Kalitate turistikoa

## Zumelaga jatetxea

San Antonio 3 / BERGARA
Tel.: 943 76 20 21
*www.zumelaga.com*

**Eskaintza**
- Enpresako bazkari eta afariak
- Despedidak, ezkontza eta bataioak
- Karta eta menu berezia
- Elbarriendako sarrera eta irteera egokituak

**Igande eguerdietan zabalik**
eta astelehenetan itxita

**kale inkesta**

# Guardiak Arrasaten egitea proposatzen dute farmazilariek. Zuk erabili duzu zerbitzu hau?



**Migel Mendinueta**
Erretiratua
Arbizu

Sekula ez dut zerbitzu hori erabili, eta ditudan 75 urte hauetan, behin ere ez naiz medikuarengana joan. Dena den, nik uste dut zerbitzua herri bakoitzean bete behar dela. Legeak hala badio, bete egin behar da.



**Chari Dobao**
Langilea
Bergara

Askotan, nire semeengatik: jaioberritan ahaztu edo agortu zaizkidan ahiak erosteko; baita larrialdietan medikuak agindutako antibiotikoak ere. Bergaran bizita, Arrasateraino joan behar izatea...



**Jose Luis Gallastegi**
Langilea
Bergara

Ez, ez zait inoiz tokatu zerbitzu hau erabiltzea. Hala ere, uste dut komeni dela zerbitzua beti egotea martxan, larrialdiren bat edozein momentutan gerta daiteke-eta. Uste dut, baina, jendea hezi ere egin behar dela.



**Mikele Aldaz**
Langilea
Bergara

Bai, larrialdi baten erabili behar izan nuen, Bergaran bertan. Ez dut ondo ikusten Arrasatera joan behar izatea, ikusi besterik ez dago osasun zentroak nola egoten diren gauez. Zerbitzua herrian badago, askoz hobe!

**irakurlearen txokoa**

## 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

OÑATI
**> Maiatzaren 1a plazan min hartzeko moduko zuloak daude**

Oñatiko Maiatzaren 1a plazan zulo handiak daude, eta gainera, bertan dagoen farola ez dabil behar den moduan: batzuetan badabil, eta beste batzuetan ez.

Hala, herritar asko ibiltzen den tokia da plaza hori, eta jakinarazi digutenez dagoeneko bat baino gehiago erori da lurrera, hankaz gora. Inork min hartu aurretik komeni da zulo horiek konpontzea.

DEBAGOIENA
**> Zelan geratzen diren kaleak, pintxo-poteoaren ostean**

Orain dela gutxi argitaratu genuen ASTELEHENEKO GOIENKARIAn pintxo-poteoak ibarreko herrietan ze arrakasta izan duen. Herritar guztiak ez dabiltza, antza, horren pozik. Izan ere, arrasatear batek idatzi digu esateko, eguenetan Arrasateko erdialdeko kaleak normalean baino zikinago geratzen direla, plastikozko plater eta bestelakoez beteta.

ARRASATE
**> Ferreriasko plaza berriko iturria ez dabil**

Hilabete pasatxo da Ferreriasko plaza berria inauguratu zutela, Ferrerias eta Erdiko kale batzen dituen plaza, alegia, eta dagoeneko plazatxoan dagoen iturria ez dabilela jakinarazi digu herritar gazte batek. "Denbora gutxi behar izan dute ondo zegoena apurtzeko; ez du asko iraun".

**usteak uste**

**Edu Mendibil**

## Vatikanoa eta Nobelak

Erroman kokatutako hiri-estatua da Vatikanoa baina ikusitakoa ikusita eta entzundakoa entzunda Marten ere egon liteke... Orain, *in vitro* ernalketaren aitzindaria izan zen Robert Edwardsi eman dioten Medikuntza Nobel Sariaren harira, Ignacio Carrasco de Paula monsinorearen (¿) azken judizioa iritsi zaigu: Edwards saritzea ez zaio ondo iruditu Carrasco de Paulari, Edwardsen ekarpenagatik izango ez balitz, enbrioiez betetako izozkailuak ez liratekeelako izango gaur han eta hemen, eta enbrioi horietako asko alde batera utziko direla edo hil egingo direla aurreikusi du monsinore txit gorenak (¿).

Liu Xiaobo disidente politikoa eta Vargas Llosa idazlea ere saritu berri ditu Suediako Akademiak. Txinatarrari babesa azalduko dio Vatikanoak? *Conversación en La Catedral* nobelaren ezkutuko mezua argituko digute?

**zorroztailea**



**Markos Balentziaga**

## Mundu aldrebesa

"Aralarreko legebiltzarkide Mikel Basaberen galdera bati erantzunez, Patxi Lopez lehendakariak atzo esan zuen onartezinak direla Nafarroan LTD bidez ETB1 eta ETB2 ikusteko Nafarroako Gobernuak jartzen dituen baldintzak".

'Berria' > 2010-10-09


Harian > Euskal Herria
Ezker abertzalearekin ez gainerako alderdiekin hitz egingo du Lopezek
Erabakitzeko eskubideari buruzko akordio bat eskatu dute Gipuzkoan

Hauxe da munduaren aldrebesa! Zapatuko *Berria*-k ohi daben moduan, txorrotx-txorrotx, honako hauxe zekarren barri laburren artian: "Lopezek salatu du Sanzek baldintza onartezinak jarri dituela ETB Nafarroan ezartzeko".

Akaso norbaitek Garotako Amabirgiñaren bezperia be badala gaurko astelehena eta hego-haiziak jota gabitzela pentsauko dau... notizia be tamaña-tamañakua da eta! Baña, bai zera! Oker dabil halako pentsakizun libertariotan (*lizunetan*?) dabillena!

Akasorik akasoenian, baña, zapatuan *Berria*-k zekarrena beste hau izan zeikiala be pentsauko dau beste nor edo nork: "Lopezek baldintza demonio-demonioak jarri ditu, nahiz eta ETB ikuslerik gabe geratzen ari den, ETBko programak Espainiako beste Komunitate batera, alegia, Nafarroara esportatzeko".

Flekillua motz eta gogorantzia motzagua dogunok be goguan dauzkagu, baña, Patxicok eta Miguelicok *3 de julio de 2009/2009ko uztailaren 3an* alkarri emon zotsen besarkada vasconavarroak España *unagrandeylibre*-aren mesedetan eta gloriatan eragin zeban haize fresko autonomikua eta ufal informatibua Españako komunitate autonomuen anaiartearen keizpetan.

> **"Lopezek salatu du Sanzek baldintza onartezinak jarri dituela ETB Nafarroan sartzeko"**
>
> **"Oraingoan gure eskemak lur jota geratu dira: Lopezek Sanz salatu?"**

Baña orainguan gure eskemak lur jota geratu dira: Lopezek Sanz salatu egiten dau? Hori diño *Berria* egunkariak.

Hola ete da benetan? Egixa da hori? Hau da, *le denuncia/salatu* egiten du? Zela dok, ba, hori? Lopez halako espansionista malapartau eta arriskutsua da Miguelicoren adimen españolistan? Eta isilik dago UPyD-ko Maneiro jauna ETB Nafarroara esportatzeko intentziño eskandaloso hori dala eta?

Kontua da Miguelicoren gobernuaren kortesia ez dagoala jolas *vascofonico*-etarako. Patxicoren asmo *vasco-expansionista*-k ez dabe gozotasunik sortu Miguelicoren eta haren gobernukideen belarrixetan. Sorpresaz harrapatu gaittu danok dibertimendu *vasco-navarrico*-ak. Zer beste esan? Hau bai dala mundu aldrebesa!

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Xabier Urtzelai **Erredakzioa** Txomin Madina, Arantzazu Ezkibel, Edu Mendibil, Irati Goitia **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

# Herriak

**Arrasate** > 14 **Bergara** > 16 **Oñati**> 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19
**Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20



**> ARRASATE**
Iturbide zaharren egoitzak 700.000 euro pasatxo jasoko ditu Diputazioaren eskutik **> 14**



**> BERGARA**
Martokoko aparkalekuak azarorako amaituta egongo dira; 27 autok lekua izango dute hor **> 16**



**> ARETXABALETA**
Ibilgailuen gaineko zerga %4 igoko du Udalak; auto hibridoek, berriz, %50eko murrizketa izango dute **> 19**



Eskoritzako Eingeinke ekimeneko ordezkariek pintxoak eta edariak banatu zituzten zapatu iluntzean udaletxeko arkupeetan, herritarrei antolatutako ekitaldien berri emateko. JOSETXO ARANTZABAL

**ESKORIATZA** > JENDARTEA

# Eingeinke, Eskoriatzako herritarrek bultzatu beharreko ekimena abian

**PARTE-HARTZEA**
Jendeak parte hartu dezan lortu nahi dute; egubakoitzero egiten dituzte bilerak

**PROGRAMA**
Datozen hilabetetarako hainbat ekitaldi prestatu dituzte Eskoriatzan

**EDU MENDIBIL** > ESKORIATZA

Herria pizteko helburua du Eskoriatzako Eingeinke ekimenak eta hori lortzeko modurik onena herritarrak aktibatzea dela uste dute bultzatzaileek. Zapatu arratsaldean datozen hilabetetarako prestatu dituzten ekitaldien berri eman zieten herritarrei. Euriaren erruz, udaletxeko arkupeetan banatu zituzten edariak eta pintxoak eta kalean edo txikiteoan zebiltzan herritar dezente hurbildu zen bertara informazioa jasotzera.

**IAZTIK LANEAN**

Joan den urtean hasi ziren lanean Eingeinke ekimenekoak. Gaur egun, 15 bat lagun batzen dira taldean. Iaz lauzpabost ekitaldi antolatu zituzten, bertso afaria, sagardotegira irteera eta Sahararen aldeko janari bilketa tartean. Ekimenaren ildoak finkatu eta gero, herritarren proposamenak batu dituzte azken hilabeteotan eta osatutako egitarauaren aurrerapena aurkeztu zuten zapatu iluntzean. Esate baterako, azaroaren 20an film laburren rallya egingo dute Eskoriatzan eta abendurako kontzertuak eta Sahararen aldeko ekitaldiak aurreikusi dituzte, besteak beste. Herritarrengandik jasotako proposamenetako bat kintada guztiak egun berean ospatzea izan da eta otsailaren 5ean egingo dute hori.

**PARTE-HARTZEA BULTZATU**

Herritarren parte-hartzea ezinbestekoa dela diote ekimeneko bultzatzaileek. "Herritarrek beraiek izan behar dute protagonismoa, ekitaldiak proposatuz, ideiak jaurtiz. Laguntza emateko gertu izango gara baina behetik sortutako, bultzatutako ekimen sendo bat izatea nahi dugu. Izenak ere horixe adierazi nahi du, herrian nahi dugun edozer egiteko gauza garela hain justu".

Eskoriatzako koadrilengana mezua heltzea eta egitasmoarekin bat egiten duen zenbat eta jende gehiago izan, askoz hobe. Herritarrek eta herriak jasoko dute emaitza.

## Degurixa norena den erabakitzeko desafioaren atarikoa, urriaren 23an

Urriaren 23rako, *Geuria don/k Degurixa* ekitaldia iragarri du Eingeinkek. Uztailean erabakiko dute Degurixa Aretxabaleta, Oñati edo Aretxabaletakoa den, baina bitartean giroa berotzen joateko aretxabaletarrei eta oñatiarrei gonbidapena luzatu diete hilaren 23ko desafiorako. Soka-tira, oliba hezur jaurtiketa, irrintzi lehia eta beste hainbat proba izango dituzte. Egunean bertan, garagardo festa izango da Eskoriatzan. Eingeinke ekimeneko bultzatzaileek azpimarratzen dutenez, herritarrek beraiek ekitaldiak antolatzea bilatzen dute, herriko giroa pizteko helburuarekin. Bestalde, egubakoitzero bilera egiten dute Santa Anan, ludoteka ondoko lokalean, 18:30ean. Esan beharrik ez dago herritar guztiak daudela parte hartzera gonbidatuta. Harremanetarako, *eingeinke@eskohitza.com* helbidea edo bloga: *www.eskohitza.com/blogak/eingeinke*.

**ESKORIATZA** > ERREKA EGUNA

# Herritarrek botatako zenbat zabor dagoen errekan ikusi dute gazteek



Denetariko materiala jaso zuten errekan: plastikoa, latak, botilak, bizikleta... SAIOA ALTZUA

## Erreka eguna ospatu zuten Eskoriatzan egubakoitzean; 26 lagun elkartu ziren

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ESKORIATZA

Erreka eguna ospatu zuten egubakoitzean Eskoriatzan. Herritar guztiei zabaldutako deia izan arren, gaztetxoak bakarrik elkartu ziren plazan; guztira, 26 lagun.

Lehenengo aldia da horrelako ekintza bat antolatzen dutena –aurrez, saiatu izan dira baina eguraldiak ez du lagundu izan–.

**ERREKAN GORA ETA BEHERA**

Bi taldetan banatu zituzten gaztetxoak. Talde bat errekan gora joan zen Santa Marina plazatik zubiraino eta beste taldea Santa Marina plazatik labe ondoraino. Denetariko materialak aurkitu zituzten: kartoiak, plastikoak, latak, metalezko objektuak eta baita bizikleta bat ere.

Batutako guztia ikusgai jarri gura dute herritarrek ikus dezaten zelako zikinkeria egoten den herriko erreketan.

**GAZTEEK PROPOSATUTA GAIA**

Ibarraundi museoko Saioa Altzuak azaldu du orain dela urte batzuk gazteek eurek Agenda 21 landu zutenean proposatutako gaia izan dela: "Uraren gaineko lan bat egin zuten eta eskatu zioten Udalari erreka garbitzea". Hala, erreka garbitzea Udalaren lana bakarrik izan beharrean, eskatu zieten gaztetxoei euren konpromisoa. "Helburua, erreka garbitzea baino gehiago da ikustea guk botatako zaborra nora joaten den", dio Altzuak.



Eskularruak jantzi eta lanerako gertu gaztetxoak. A.E.



Santa Marinako plazatik jaitsi ziren errekara. S.A.



Errekatik zaborra atera eta multzoa osatzen. A.E.



Umeak zabor poltsekin. S.A.



Jende gehiena eguerdiko mezaren ostean hurbildu zen atzo komentuko klaustrora. JOSETXO ARANTZABAL

**OÑATI** > LIBURU AZOKA ARANTZAZUN

# Frantziskotarren liburu azoka Arantzazun, urriaren 31ra arte

Arantzazuko argitaletxeak azken urteotan plazaratutako liburuak dira gehienak

**EDU MENDIBIL** > OÑATI

Arantzazuko Adiskideen Batzordeak botatako proposamenari helduz, eta santutegiko fondoetan bildutako liburuei irtenbidea eman nahian, frantziskotarrek liburu azoka ireki zuten aurreko astean. Urriaren 31ra bitarteko domeka guztietan izango da zabalik, 10:00etatik 14:00etara. Bihar, martitzena, ere ordutegi berean izango da erosteko aukera. Azken 30 urteotan Arantzazuko argitaletxeak plazaratutako liburuak dira gehienak. Jose Mari Arregi frantziskotarrak atzo azpimarratzen zuenez, “saltzen ez gara oso trebeak izan eta gordeta izan beharrean hobe da jendeak etxera eramatea”.

**PREZIO ONEAN**

Salgai jarritako liburuen artean, Pagolaren azken lana, Fidel Aizpuruaren *Una luz entre la niebla* (9 euro), Antonio Bilbaoren *Pentsakizunak* (3 euro), *Kresala* (D. Agirre, 5 euro), Bitoriano Gandiagaren *Elorri* (6 euro) edota Jose Maria Arizmendiarrietaren bibliografia, Fernando Molinak idatzitakoa (19 euro).

Komentuko klaustroa liburutegia bilakatuta, etxera eramateko perlen bila ziharduen jendeak atzo eguerdian.

DATUA

**115**

**TITULU**

115 titulu zituzten atzo salgai Arantzazun. Prezio merkean erosteko aukera dago. Garestina, Pagolaren *Jesus, hurbilketa historikoa* (32 euro gazteleraz).



**Sara Martinez de Zuazo**
Oñati

"Gizonarendako disko bat, Mariano Errastiren *Arantzazu berria bidean gora* liburua eta egutegia erosi ditut; egutegiko txisteak eta pasadizoak atsegin ditugu etxean".



**Arantxa Amondarain**
Tolosa

"Lagunekin etorri gara. Gauza interesgarriak daude, eta prezio onean gainera. Oraingoz liburu bakarra erosi dut: *Pobre baten jakinduria*, Eloi Leclerc-ena".



**Jose Mari Arregi**
Frantziskotarra

"Aurreko domekan jende gehiago ibili zen Errosarixo Eguna zelako eta egun horretan jende dezente etortzen delako Arantzazura. Dena dela, pozik gaude orain artekoarekin".



**Francesc Oller**
Bartzelona

"Derioko lagunek ekarri gaituzte Arantzazu ezagutzera eta gustura gabiltza inguru honetan. Jonan Fernandezen liburu bat erosi dut, *Educar en ser persona* hain zuzen".



JOSETXO ARANTZABAL

**OÑATI** > DANTZA

## Santa Ana aretoa txiki geratu zen

Sekulako ikusmina piztu zuen Oñatin atzoko dantza ikuskizunak. Plazan egitekoa zen baina Santa Anara eraman behar izan zuten euriagatik; jende ilara luzeak izan ziren emanaldiaren aurretik. Lorea Igartua oñatiarrak herritarren aurrean dantzatu zuen Nahia lagunarekin batera. Errobera aulkian 10 bat minutuko saioa egin zuen Loreak Nahiarekin. Jarraian, down sindromea duten Verdini taldeko kideen txanda izan zen. Ordubete inguruko saioa eskaini zuten, ikusleen txalo zaparrada luzea jasoz.



JOSETXO ARANTZABAL

**ESKORIATZA** > LUDOTEKA

## Artista gaztetxoak

Gustura jardun zuten argazkiko neska-mutikoek zapatuan Eskoriatzako Tortolis ludotekan. 7 eta 12 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako saioa antolatu zuten arratsaldean eta, argazkian ikus daitekeenez, artista sena erakutsi zuten guztiek. Bustinarekin figura politak eta koloretsuak osatu zituzten eta bestelako jolasekin ere lagunartean ederto pasatzeko aukera izan zuten. Aisialdian joko eta jostailu bidez euskaraz heztea du helburu Santa Anako ludotekak.

**OBRAK** > ITURBIDE EGOITZA

# 700.000 euro pasa emango ditu Diputazioak Iturbide egoitzarako

Aurtengo apirilean bukatutako berrikuntza obrak finantzatzen laguntzeko emango du Gipuzkoako Foru Aldundiak dirulaguntza gehigarri hori

**UBANE MADERA**> ARRASATE
Diputazioak 750.750 euroko dirulaguntza gehigarria emango dio Arrasateko Udalari Iturbide egoitzan egindako obrak finantzatzeko. Dirulaguntza emate horrekin, gainera, Diputazioak onartu egiten du egoitzako obretan egindako proiektu aldaketak eta kapital handitzeak arrazoizkoak izan direla eta Diputazioari dagokiola kostu osoaren %75 ordaintzea.

Duda barik, pozik hartu dute albiste hori Arrasateko Udalean, batez ere kontuan hartuta Iturbide berritzeko proiektatutako aurrekontua 3.170.742 euro zela eta obra bukatzean ia 700.000 euro gehiago gastatu zituztela obra berriei aurre egiteko. Aurten, apirilean, bukatu dituzte obra horiek.

**LARRIALDIETARAKO ESKAILERA**
Bestalde, Udalak orain jasoko duen dirulaguntza gehigarri horri esker gauzatu ahal izango dute egin barik utzi duten egoitzarako larrialdi irteera. 230.000 euroko inbertsioa egingo dute.

Azken horren harira, eta, Udaleko Gizarte Zerbitzuen xehetasunen arabera, larrialdiko eskaileraren proiektua eginda dago eta lizitazio prozesua abiarazita. Asmoa da datorren urtean hastea obrok. "Eskailera egoitzaren kanpotik joango da; beraz, ez du eraginik izango egoitzaren funtzionamenduan".

**ZERBITZU ETA ESPAZIO BERRIAK**
Azken urteotan Iturbide egoitzan egindako obrei esker, Arrasateko egoitzak espazio eta zerbitzu berriak irabazi ditu. Batetik, solairu bat gehitu diote, orain arte Abaroa egoitza izan dena. Bestetik, espazioari dagokionez, 98 egoiliarretik 104 egoiliarrendako lekua izatera pasa da egoitza.



Berrikuntza obrei esker, Iturbide egoitzak espazioa irabazi du (solairu bat) eta zerbitzu berriak gehitu dizkiote. U.M.



Itsaso del Rey diseinatzailea, berak landutako jantzi batzuekin. U.M.

**Itsaso del Rey** > Diseinatzailea

## "Helburua da etxean daukagun materiala aprobetxatzea"

**A. ARANBURUZABALA** > ARRASATE
**Norberaren sormena bultzatzea helburu duen ikastaroa antolatu du Udal Gazte Bulegoak: kustomizazioa. Etzi, eguaztena, hasiko dute, abendura arte, Itsaso del Rey diseinatzailearen eskutik. Hala ere, oraindik eman daiteke izena**

**Ikastaroan parte hartzeko derrigorrezkoa da joskintzan gutxieneko oinarria izatea?**

Zerbait jakinez gero beti da hobe erraztasun handiagoa izaten delako, baina dena ez da jostea, margotu ere egin behar dugu, gauzak transformatu… Ez da beharrezkoa zerbait jakitea. Hutsetik hasten direnendako ere zuzenduta dago.

**Zelan landuko duzu?**

Zortzi saio izango dira guztira, eta denetik egingo dugu: kamisetak margotu, prakak transformatu poltsa edo gona… daukaguna aprobetxatu.

**Hortaz, bakoitzak etxeko materiala eramango du?**

Bai, hori lortu gura dugu: bakoitzak etxean duen arropa, erabiltzen ez duena birziklatu eta erabiltzea. Helburua ez da, adibidez, ikastarorako bereziki kamiseta zuri bat erostea gero hura eraldatzeko.

**Zuri dagokizunez, hirugarren ikastaroa da, ezta?**

Arrasaten egiten dudan hirugarren ikastaroa izango da, bai. Baina kustomizazioari dagokion lehena izango da aurtengoa.Aurretik beste ikastaro batzuk egin izan ditut: baserritar jantziena, oinarrizko joskintzaren gainekoa hemen eta Tolosan…

**Zu zeu zelan hasi zinen joskintzan, ez da hain arrunta…**

Amak beti josi du etxean, eta aukera izan nuenean Diseinua ikasi nuen Bilbon. Madrilen ere egon nintzen beste bi urtez.

**ARRASATEKO UDALA** > OSOKO BILKURA

# Garaiarendako 750.000 euroko ekarpena egin beharrak eztabaida sutsua eragin du

Garaia Berrikuntza Gunearen egoera ekonomikoari aurre egiteko kapital handitzearen barruan 756.400 euroko ekarpena egin behar du Udalak

**U.M.**> ARRASATE
Garaia Berrikuntza Guneak Arrasateko Udalari eskatutako diru ekarpen berriak eztabaida sutsua eragin zuen eguneko osokoan politikarien artean.

Izan ere, Garaiak kapital handitzea egin behar duela-eta, Arrasateko Udalari eskatu dio 756.400 euroko kapital ekarpena egin dezala. Eta hori ez dute batere ondo ikusi PPk, Aralarrek eta Alternatiba-Zutik koalizioak.

**KONTRAKOEN SALAKETAK**
Salatu zuten ez daudela ados Udalaren egoera ekonomikoa ikusita Garaiari beste 756.400 euro ematearekin. Eta salatu zuten, baita ere, beste 300.000 euro pasako ekarpena airean geratu dela eta balitekeela hori ere Udalak ordaindu beharra izatea eta, beraz, guztira, milioi euro pasako ekarpena izango litzatekeela.

Azpimarratu zuten, gainera, orain kopuru hori eskatzen badute dela Garaiaren kudeaketa" oso txarra" izan delako, eta horren harira, erantzukizunak eskatu beharra dagoela uste dute. Ildo berean, salatu zuten Mondragon Taldeak berak taldeko hainbat negozio, berez Garaian kokatu beharrekoak, handik kanpo kokatu izan dituela.

**ALDEKOEN ARGUDIOAK**
Garaiaren ekarpena defendatu zutenek (EAJ, EA, PSE-EE eta Udal Gobernua) onartu egin zuten Garaiaren kudeaketa txarra izan dela eta Mondragon Taldearen jarrera ez dela egokia izan.

Baina agerian utzi gura izan zuten, baita ere, Mondragon Taldeak "presio politiko handiak" jasan dituela egindakoa egiteko. Nabarmendu zuten Arrasateko Udaleko alderdi politikoen artean hasieratik izan dela Garaiaren aldeko eta kontrako jarrera eta hori ere agerian geratu zela eguneko bilkuran. Eta gogora ekarri zuten Garaiari ekarpen berria ez egiteak ekarriko zukeela Udala Garaiatik kanporatzea, eta EAren zein Ino Galparsoro alkatearen esanetan, hori ez luketе "arrasatearrek ulertuko". Apraitzek (EAJ), berriz, defendatu zuen Garaia "etorkizuneko tresna" dela eta "prestigioa" emango diola Arrasateri berari.

> UDALA

### 389 lagun deituta datozen asteotako azterketetarako

Etzi, eguaztena, dute hitzordua Arrasateko Udalak deitutako lanpostu publikoen artean liburuzain laguntzaile izan gura duten 114 lagunek azterketa egiteko. 10:30ean dute azterketa, teoriko orokorra, Uarkapen.

Hurrengo hitzordua, berriz, urriaren 20an izango da. Justu deialdi horretarako onartu dute lagun talderik handiena: 154 lagun. Horiek guztiak BAZeko langile izateko eman zuten izena.

Eta azkeneko azterketa urriaren 28an egingo dute, peoi izan gura dutenek. 121 lagun daude onartuta.

**KULTURA** > MUSIKA

# Lelenarock jaialdia dator, herriko lau talderekin

Los Cretinos, Cool Circus, Los Galerna eta Bitter Honneyk joko dute asteburuan Taupa kanpoan

**J.B.** > ARRASATE

Beste musika jaialdi bat sortu da Arrasaten: Lelenarock. Jaialdiaren lehen edizioa izango da, baina ez diote izen hori jarri lehena delako. Izan ere, Azkena Rock Festival jaialdia famatuaren aurrean, Lelenarock bataiatu dute. Halaxe azaldu du Beñat Zaitegi antolatzaileak: "Jaialdiari izenen bat jarri behar zitzaion eta, ba, Azkena Rockekin lotzea bururatu zitzaidan, besterik gabe".

Lau taldek hartuko dute parte jaialdian, egubakoitz eta zapatuan. Kontzertuak Taupa tabernaren kanpoaldean izango dira. Izan ere, udatik bueltan urtero antolatzen dira kontzertuak bertan, egun baterako. Aurten, baina, bi eguneko jaialdia egitea pentsatu dute, eta, Zaitegik jakinarazi duenez, Taupa kanpoko arkupean agertoki txiki bat jarriko dute. Hala, eguraldi txarrarekin ere ez da arazorik izango kontzertuez gozatzeko.

**LAU TALDEAK, HERRIKOAK**

Los Cretinos eta Cool Circus egubakoitzean eta Los Galerna eta Bitter Honey zapatuan, lau taldek hartuko dute parte jaialdian. Arrasatekoak dira, eta musika munduan esperientzia handikoak. Rock doinuak izango dira nagusi –Los Galernaren surfa izan ezik–, taldea bakoitzaren ukitu bereziekin. 18:00etan hasiko dira saioak eta, noski, sarrera doan izango da.



Los Galerna laukotearen surf saio landua izango da zapatuan. ARTXIBOA

**AISIALDIA** > GAZTETXOAK

# Gazte txokoek dantza maratoia eta lehiaketa eta surf ikastaroa antolatu dituzte egunotarako

Zapatuan, urriak 16, 'Dantzatu edo sutara' ekimena egingo dute Kulturaten eta hilaren 23an Zarautzera joango dira, surfa ezagutzen hasteko

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Txatxilipurdik kudeatzen dituen gazte txokoak eskaintza berri batekin datoz oraingoan. Izan ere, zapatuan *Dantzatu edo sutara* ekimena egingo dute. Lander Juaristi Txatxilipurdiko dinamizatzaileak azaldu duenez, Kulturatera joaten den gaztetxoak dantza egin beharko du: "Asmoa da Kulturate dantzan jartzea, hurbiltzen diren gaztetxo guztiek dantza egin dezatela. Ezin da ikusle moduan joan", dio.

Gazte txokoetan oso arrakastatsua den *Just dance* jolasa egingo dute eta bakarka zein taldeka talde onenari sariak emango dizkiote. Lehiaketa itxura ere izango du, beraz. Horrela, Juaristik dioenez, gaztetxoak ekimenean inplikatzea bilatzen dute antolatzaileek.



Urrirako surf ikastaroa antolatzen dute urtero. Irudian, iazko ikastaroa. GOIENKARIA

**DATORREN ASTEAN, SURFA**

Bestalde, urtero moduan, surf ikastaroa egingo dute. Urriaren 23an joango dira Zarautzera eta bertako surf eskolakoekin batera surfa ezagutzeko aukera izango dute gaztetxoek. Surfa egiteaz gain, bertan pasatuko dute eguna. Gazte txokoetan edo gazte bulegoan eman behar da izena irteerarako.

Garibaiko geltokian elkartuko dira irteteko, 09:15ean. Prezioa 12 euro izango da.

> EUSKALGINTZA

## AEDren Arrasateko euskalkiaren gaineko ikastaroa bihar hasiko da Udal Euskaltegian

Bihar hasiko da Arrasateko euskalkia ikasteko edo hobetzeko ikastaroa, AEDk Udal Euskaltegiarekin elkarlanean antolatu duena. Zahar edo berri, euskaldun guztiei zuzenduta dago, baita eguneroko bizitzan euskalkia erabiltzen dutenei ere. Izan ere, azken horien artean ere badira ondo egiten ez dutenak.

Matrikula 55 euro ordaindu beharko da eta AEDko bazkideek 5 euro gutxiago ordaindu beharko dituzte. 20 orduko ikastaroa izango da eta urri bukaeran hastea da asmoa, Udal Euskaltegian. Euskalkia ikasi edo hobetu gura duten euskaldun guztiei dago zuzenduta, beti datorrelako ondo gehiago jakin edo dakiguna hobetzea.

> MUSIKA

## Zuzeneko musika oldarkorra bihar gaztetxean, Suitza eta Indonesiatik datozen taldeen eskutik

Aste bukaeran zehar egin diren kontzertuek jarraipena izango dute bihar gaztetxean. Igartzen da AGAKOk Kooltur kultura elkarte sortu berriarekin batera erositako musika ekipoak askatasun handia eman diola gaztetxeari kontzertuak antolatzeko orduan. Ikasturte berriko aldaketa nagusia izan da musika ekipoa, eta gaztetxeko kultura eskaintza erabat baldintzatu du. Izan ere, irail erdialdetik hona ia aste bukaeraro egon dira kontzertuak.

Hala, bihar ere egongo da zer ikusi, eta oraingoan atzerriko bi talde izango dira protagonista agertoki gainean: Suitzatik datorren Sin Logica taldea eta Indonesiatik datorren Kontrasocial izeneko taldea. Biek musika oldarkorra egiten dute; lehenak punka eta bigarrenak, berriz, crust-punka –hardcore eta muturreko metaletik datorren estiloa da–. Kontzertuak 19:00etan hasiko dira.




MONDRABERRI

## AHTren aurka protesta egiteko, autobus gainera

Eguen iluntzean Abiadura Handiko Trenaren aurkako zenbait ekintzailek protesta egin zuten herriaren erdigunean. Protesta oharkabean pasa ez zedin autobus urbano batera igo eta *4.790 euro bakotxak. Lelotuta ero?* eta *AHTrik ez eta kitto!* esaten zuten pankartak erakutsi zituzten. Horrela, azpiegiturak izango duen kostu ekonomikoa salatu zuten. Horrez gain, zenbait eskuorri banatu zituzten. Eskuorriotan, besteak beste, Aramaioko alkate Asier Agirreren kargugabetzea gogor kritikatu zuten.

**HIRIGINTZA** > APARKALEKUAK

# Martokoko aparkalekuak azarorako eginda

Duela bi aste hasi ziren lanak; mendiari zatia janda 27 autorendako lekua egiten dihardute

Lanek iraun bitartean norabide bakarreko –beherantz– egongo da kalea



Mendi magalari zatia janda irabazi dute aparkalekuak egiteko lekua. Magalari eusteko harri lubeta ere egiten dihardute. M.B.

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Martoko gaineko aparkalekuak egiten hasi dira dagoeneko; hain justu ere, irailaren 23an ekin zieten lanei.

Martoko-Zubiaurre auzunearen irisgarritasuna eta zirkulazio eragozpenak hobetzea da aparkaleku gune horren helburua; auzuneari arnas apur bat ematea, hain justu. Izan ere, aparkaleku gabezia eta errepidearen estutasuna izan dira urteetan auzotarren aldarrikapen nagusietako bat.

Aparkaleku horiek egiteko mendi magalari zatia jaten ari dira, Xabier Ieregi arkitektoak egindako proiektuan oinarrituta. Lanen aurrekontua 70.837 euro da eta Sasoi Eraikuntza enpresak egiten dihardu. Udaletik aurreratu dutenez, abuztuaren 27an esleitu zituzten lanok eta enpresak 70 egun natural izango ditu lanok bukatzeko. Hori horrela izanik, azarorako lanok bukatuta egon beharko dute.

**1.000 METRO KOADRO**

Errepidearen alde baten aparkaleku banda egiten dihardute, baterian aparkatzeko, eta 27 autorendako lekua egongo da. Plaza horietako bat mugikortasun zailtasunak dituzten pertsonendako izango da.

Obra guztiak ia 1.000 metro koadroko zabalera hartuko du, aparkatzeko gunea bera eta mendi magalari jandako eremua eta hari eusteko erabiliko den lubeta kontuan hartuta. Lurren mugitzeei dagokienez, harri lubeta eraikiko dute mendi magalari eusteko. Hain justu ere, magalari zatia jatearekin batera harri lubeta hori ere eraikitzen hasi dira Sasoi Eraikuntzak enpresakoak, goiko irudian ikusten denez.

Aparkalekuak errepidearen maila berean egongo direnez, biak bereizteko areka bat egingo dute eta jasotzen diren urak handik bideratuko dira.

**OZAETAKO ZUBIAN SEMAFOROA**

Lanok iraun bitartean norabide bakarreko egongo da errepidea, beheranzko norabidean, hain justu ere. Dena den, lanak bukatzen dituztenean, ohikora bueltatu eta bi noranzko izatera pasako dira berriz ere Martoko eta Zubiaurre kaleak.

Horren haritik, beste berrikuntza bat ere izango da auzune horretan. Hain justu ere, Ozaetako zubian semaforoa jartzeko erabakia hartu du Udalak. Iraileko ohiko osoko bilkuran hartu zuen erabaki hori udalbatzak aho batez.

Asmoa da Ozaetako zubiaren mutur banatan jartzea semaforoa, eta helburua da herritarren segurtasuna bermatzea. Udal iturrien esanetan, estua da zubia eta oinezkoak lasai ibiltzeko leku gutxi dago. Horren harira ere hainbat kexu jaso dituztela aurreratu dute. Udal iturriek gehitu dutenez, semaforoak jarriko dituzte Martoko gaineko aparkalekuko lanak bukatu eta errepidea berriz bi norabidekoa izatera bueltatzen denean.

DATUA

**27**

**APARKALEKU**

Errepidearen alde baten aparkaleku banda egiten dihardute, baterian aparkatzeko. 27 autorendako lekua egongo da eta horietako bat gordeko da mugikortasun zailtasunak dituztenendako.

---

**UDALA** > ZERBITZUAK

## Sorosle eta lehen sorospen ikastaroa emango ditu DYAk

M.B. > BERGARA

Gipuzkoako DYAk sorospen eta lehen sorosle ikastaroak emango ditu herrian urriaren 18an. Azaroaren 8ra arte iraungo du ikastaroak eta eskolak 19:00-21:00 ordutegian izango dira, astelehenetik egubakoitzera, kultura etxean.

Ikastaroan parte hartzeko ez da beharrekoa aurrez ezagupenik izatea, eta egunerokotasunean gerta daitezkeen arrisku egoerei nola erantzun ikasteko aukera egongo da: bihotz eta birika suspertzea, zauriak, hausturak, erredurak... nola sendatu. Hori guzia eskola teoriko zein praktikoen bitartez egingo dute.

Horrekin batera, nahi duten ikasleek DYAren sorosle titulua eskuratu ahal izango dute, ikastaro bukaeran egingo dituzten frogak gaindituta.

Matrikularen prezioa 90 euro da –eskuliburua ere banatuko dute– eta izena 943 46 46 22 zenbakian eman behar da.

---

> ARGAZKILARITZA

## Photoshop bidezko eta oinarrizko argazkilaritza ikastaroak antolatu dituzte azarorako

Photoshop bidezko argazkilaritza ikastaroa eta oinarrizko argazkilaritza ikastaroa antolatu ditu Udalak azarorako. Photoshop bidezko argazkilaritza ikastaroari dagokionez, hastapen eta sakontze mailak egongo dira eta batean zein bestean parte hartzeko ezinbestekoa izango da Windows sistema ezagutzea.

Ikastarook izango dira azaroan barrena eta plaza mugatuak dira–bergararrek lehentasuna izango dute–. Izena emateko kultura etxera jo behar da (Errotalde jauregia) edo 943 77 91 59 telefono zenbakira deitu. Izena emateko mugaeguna azaroaren 20a da.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia




Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53
Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37
Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13

**KULTURA** > MUSIKA

# Organoa eta biolina uztartuko dituzte zapatuan San Pedron

Josep Maria Mas organo-jotzaileak eta Josep Maria Manresa biolin-jotzaileak egingo dute organo erromantikoren zikloko hirugarren saioa

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Organoa eta biolina batuko dira datorren zapatuan San Pedro parrokian egiten diharduten organo erromantikoaren zikloan. Ohi bezala, 20:00etan izango da emanaldia eta bi musikari kataluniarrek parte hartuko dute: Josep Maria Mas organo-jotzaileak eta Josep Mari Manresa biolin-jotzaileak.

Mas organo katedraduna da Liceuko Musikako Goi Mailako Kontserbatorioan, Bartzelonan. Era berean, organista titularra da Reusko Sant Pere elizan eta zuzendari artistikoa eliza horretan urtero antolatzen diren nazioarteko organo zikloetan.

Bestalde, zenbait CD grabatu ditu Kataluniako organo historikoetan; besteak beste, iberiar musikako *Grand Prix du Disque* izenekoa. Disko hori grabatu zuen Montblanc eta Sa Pobla (Mallorca) herrietako organoetan. Aipatzekoa da lan hori Auvidis Valois-ek argitaratutako *Espainiako organo historikoak* bilduman jasota dagoela.

Josep Maria Manresa biolin-jotzaileari dagokionez, Montblanceko Udaleko Musika Eskolako zuzendaria eta biolin irakaslea da. Europako zenbait jaialditan hartu du parte hainbat orkestra eta ganbera talderekin eta irratirako, telebistarako eta diskoetarako grabatu du Kataluniako ganbera orkestrarekin eta orkestra sinfoniko nagusiarekin. Michel Eggimann-ek egindako biolina dauka, 1734ko Guarneri baten kopia, eta kontzertuetan erabiltzen du.

**EGITARAUA**

Bi kataluniarrek egingo duten kontzertuari dagokionez, zazpi obra joko dituzte. Besteak beste, joko dituzte: Bachen *Preludio eta fuga do mayor*-en, BWV 545 (organorako); Mendelssohnnen *Sonata IV, si bemol mayor*-en (organorako); eta Jean Marie Leclair-en *Sonata fa mayor*-en (biolin eta organorako).



Organo kontzertua San Pedroko organo erromantikoan. GOIENKARIA

**UDALA** > INKESTA

## DJ Jon Urbietak jarriko du musika hilaren 16ko gazteen Zabalotegiko jaialdian

**M.B.** > BERGARA

Jon Urbieta disko jartzailea arduratuko da musikaz datorren zapatuan, hilaren 16an, Zabalotegin egingo duten gazteendako jaialdian.

Hain justu ere, aurreko ikasturtean izandako arrakasta ikusita –batez beste 130 gazte ibili ziren–, Udalak erabaki du gaztetxoendako DJ jaialdiak antolatzen jarraitzea. Zabalotegin izango dira, 18:30-21:30 ordutegian, eta 12 eta 14 urte arteko neska-mutikoei zuzenduta daude. Dantza egin eta ondo pasatzeko aukera izango dute han.

Oraingoz, urte bukaera arteko egutegia dago zehaztuta, baina Udaletik aurreratu dute jarraipena izango duela ekimenak datorren urtean. Aurtengo jaialdiak izango dira urriaren 30ean, azaroaren 13an eta 27an eta abenduaren 11n.



Aurten ganadua ez dute plazan jarriko, zelaietan baizik. GOIENKARIA

**KULTURA** > ERAKUSKETA

## Bihar, martitzena, ganadu feria egingo dute Elosuan

**M.B.** > BERGARA

09:00etan hasiko da bihar, martitzena, Elosuko ganadu feriaren 32. aldia. Ohiko jaki eta artisau postuez eta ganaduaz gain, taberna, talo postua eta taulatu txikia ere egongo dira pilotalekuan.

Arratsaldean ere egongo da zer ikusi Elosuan: 17:30ean idi probak egongo dira. Aizarnazabalgo Etxabek eta Elosuko Bentostek nor baino nor gehiago jardungo dute.

Idi proben ostean aurtengo berrikuntzaz gozatu ahal izango da: aizkoraren eta motozerraren arteko erronka. Zubizarreta eta Agitek aizkoraz eta Juan –Washingtongo txapelduna– motozerraz –80 moztualdi– sei egur kana erdiko zeinek lehenago moztu lehiatuko dira.

Bestalde, Elosura igotzeko autobusa antolatu dute, azkeneko urteetan bezala. Lehena abiatuko da 09:30ean San Martin plazatik eta azkena jaitsiko da 15:00etan Santutxutik. Bidaia bakoitzaren prezioa euro bat da. Feriako antolatzaileek dei egin dute urbanoan igotzeko.

**oharrak**

HEZKUNTZA

**> Klima aldaketaren gaineko hitzaldia hilaren 19an Zabalotegin**

*Klima aldaketa eta haren eragin ekonomikoa* delako hitzaldia egingo du –ingelesez– Kaysara Khatun fisikariak. 09:30ean izango da, Aranzadi ikastolak antolatuta.

IKASTAROA

**> 'Emakumeak sarean' ikastarorako izenematea zabalik dago**

Urritik abendura bitartean emango dira *Emakumeak sarean* prestakuntza digital ikastaroak. Proiektu horren bidez, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak emakumeengana zein emakume elkarte eta taldeetara gerturatu nahi dira. Parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute KZgunean edo *www.kzgunea.net* helbidean.

ERRETIRATUAK

**> San Joxepen salgai dute Gabonetako Loteria**

San Joxepe elkartetik jakinarazi dutenez, dagoeneko salgai jarri dute Gabonetako Loteria egoitzako tabernan eta elkartearen bulegoan. Horrez gain, Internet, informatika eta Excel ikastaroak ere egingo dituzte laster. Informazio gehiago, bulegoan.

UDALA

**> Udala 2011n kaleratuko duen egutegirako argazki bila dabil**

Egutegia aurreko urtekoen tankerakoa izango da, baina aurten gai monografiko bati buruzko argazkiz hornituko du. Landuko den gaia da: etxe-atariak, etxesarrerak, ateak, aldabak... Egutegirako aukeratutako argazkiak ordaindu egingo dituzte eta Udal Artxibategian jasota geldituko dira. Bestalde, egutegian publizitatea jarri nahi duten herriko dendari, ostalari, enpresa, talde, ikastetxe eta abarri ere deia zabaldu nahi diete. Argazkia aurkezteko edo publizitatea jartzeko interesa dutenek Udaleko Euskara Zerbitzura deitu behar dute. (943779129). Azken eguna urriaren 20a da.

ELKARTASUNA

**> Urriaren 13an izango da hurrengo odol-ateratzea**

Ohi bezala, Errege Seminarioan duten egoitzan izango da.

IKASTAROA

**> Oraindik eman daiteke izena biodantza ikastaroan**

Urrian hasiko dira eskolak eta astelehenetan izango dira, 19:00-21:00 ordutegian, Miguel Altunan. Izena emateko edo informazio gehiagorako deitu 626 66 12 92 zenbakira (Mentxu).

HEZKUNTZA

**> Esperientzia Eskolan izena emateko epea zabalik dago**

50 urtetik gorakoei zuzenduta dago eta eskolak Miguel Altunan izango dira. Izenematea Bizikasi zerbitzuan da, eta urteko matrikula 275 euro –epeka ordaintzeko aukera dago–. Eskolak urriaren 19an hasiko dira.

**KULTURA** > IKASTAROAK

# Eskulan tailerretan parte hartzeko zapatura arte eman daiteke izena

Bost ikastaro egingo dituzte: hari, patchwork eta puntu lanak; zeramika; eskulanak; bitxigintza eta pintura; izenak kultura etxean eman daitezke

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Udaleko Kultura Sailak antolatutako eskulan ikastaroetarako izenemate epea zapatura arte dago zabalik. Interesatuek kultura etxean eman beharko dute izena. Bost ikastaroetan eskaintzen dituzten plazak baino lagun gehiagok izena ematen badute, zozketa bidez zehaztuko dituzte ikastaro bakoitzeko taldeak. Behin betiko taldeak osatu ondoren, ordainketa egiteko epea zabalduko dute: helduen ikastaroetan parte hartzen dutenek 66,50 euro ordainduko dituzte; haurren ikastaroetakoek 48,40 euro; eta bitxigintza ikastarokoek 23 euro.

**GEHIENAK, 40 ORDUKOAK**

Azaroan hasi eta maiatzera arte egingo dituzten ikastaroak 40 ordukoak izango dira, bitxigintzakoa izan ezik: hamar orduko bi ikastaro emango dituzte.

Hari, patchwork eta puntu laneko tailerra Arantzazu Lizarraldek emango du astelehenetan eta eguaztenetan. Bestalde, Imanol Aranburu izango da zeramikako irakaslea. Helduendako ikastaroa emango du astelehenetan eta eguaztenetan eta 7-12 urte arteko neska-mutikoena eguaztenetan.

**BITXIGINTZAKO BI IKASTARO**

Bitxigintza ikastaroa Irati Ugartek emango du egubakoitzetan: lehen ikastaroan metala eta larrua landuko ditu eta bigarrenean kristala eta harribitxiak. Bestalde, egurra margotzeko tailerra martitzenetan emango du Jasone Agirrek. Bi talde egingo ditu: 15:00etan bata eta 18:00etan bestea.

**GAZTEEN PINTURA, ADINKA**

Nagusiendako pintura ikastaroa Luis Laskurainek emango du, astelehenetan eta martitzenetan. Bestalde, gaztetxoendako pintura ikastaroko irakaslea Lexeia Larrañaga izango da. Adinaren arabera bi talde egingo ditu: 5-9 urte artekoak eguenetan batuko dira eta 10-15 urtekoak egubakoitzetan.



MIREIA BIKUÑA

## Errekalde eta Moiua asfaltatu egin dituzte

Errekalde eta Moiua kaleetako asfaltatze lanak bukatu dituzte. Jaiak aprobetxatu dituzte lanok egiteko. Bestalde, aparkalekuak eta autoa aparkatu ezin daitezkeen tokiak margotu dituzte. Moiua kalean, bidegorria margotu dute errepide erdian. Orain, eraberritze lanak guztiz bukatzeko, herri-altzariak eta argiztapena ipintzea falta da.

Bestalde, Errekalde eraberritzeko lanen bigarren fasea 2011n egingo dute. Udalak dagoeneko eskatu dio proiektua A2B Arquitectos enpresari.

**oharrak**

DEIALDIA

**> 1975eko kintoek bazkaria egingo dute azaroan**

Bost urteren ondoren, 1975eko kintoak azaroaren 20an batuko dira bazkaltzeko. Interesatuek azaroaren 8a baino lehen eman behar dute izena: 50 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako 3035000537005104255O zenbakian. Bazkaria Soraluze hotelean egingo dute.

DEIALDIA

**> Diapositiba emanaldia Txirrinka taldearen eskutik**

*Al Himalaya en bizikleta* delako diapositiba emanaldia egingo dute Aurora eta Ruben gasteiztarrek urriaren 14an, 19:00etan, kultura etxean. 2007an bizikletaz egindako bidaiaren kronika egingo dute.

KIROLA

**>1999an jaiotakoendako eskubaloi entrenamenduak**

11 urte izan eta eskubaloian jokatu gura duten neska-mutikoendako entrenamenduak egingo dituzte Aloña Mendiko kideek hilaren 14tik aurrera. Eguenero bilduko dira kiroldegian, 16:30etik 18:30era.

> ZERBITZUAK

### Kiroldegiko igerilekua zabalik dago, garbiketa egin ostean

Osakidetzak agindutako garbiketa egin ostean, kiroldegiko igerilekua zabalik dago erabiltzaileendako. Igerileku handia eta txikia garbitu eta berrikuntza eta mantentzelanak egin dituzte. Igerilekua zabalik dago astelehenetik egubakoitzera 07:30etik 21:30era; zapatuetan, 09:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:30era; eta domeketan, 09:00etatik 13:30era.

**ZINEMA** > EMANALDIAK

# 'Two lovers' drama erromantikoa zineklubean

James Grayk zuzendutako azken lana emango dute eguenean, 20:00etan, kultura etxean

Apiril bukaera arte 30 bat pelikula eskainiko dituzte, jaiegun ez diren eguenetan

**M.B.** > OÑATI

Zineklub taldekoek denboraldiko bigarren emanaldia egingo dute asteon: James Gray zuzendariaren *Two lovers* emango dute. Joaquin Phoenix, Gwyneth Paltrow eta Vinessa Shaw dira protagonistak.

**APIRILERA ARTE, 30 PELIKULA**

Emanaldiak kultura etxeko zinema-aretoan egingo dituzte eguenero, 20:00etan. Dagoeneko zehaztu dituzte pelikuletako batzuk. Adibidez, hilaren 28an Jacques Audiarden *A Prophet* emango dute. "Apirileko azken eguenera arte jaiegun ez diren eguen guztietan zineklub emanaldiak egingo ditugu. Jaiegun direnetan, ostera, zinema komertzialeko pelikula bat eskainiko dute", esan digu zineklub taldeko kide Anton Azpiazuk.

Batez beste, 70 bat lagun joaten da eguenetako emanaldiak ikustera. "Hiriburuetako zinema-aretoetan zenbat ikusle dabilen ikusita, ikusle fidelak ditugula esango nuke. Azken urteotan pertsona berberak doaz; baina, azkenaldian, seme-alabak hazita dituzten bikote geroz eta gehiago joaten da emanaldietara", esan digu. Bestalde, eguenetan zinemara joateko ohiturarik ez dutenei gonbita egiten diete: "Gustuko duten pelikula ikustera etor daitezela!".




*Two lovers* filmeko kartela. GOIENKARIA

**"PELIKULA IA GEHIENAK"**

Zineklub taldekoek zinema komertzialeko ardura duen Kruz Mari Antsoalderi eskatzen dizkiote filmak. "Izugarrizko laguntza ematen digu. Eskatutako pelikula gehienak ekartzen dizkigu. Eskerrak eman beharrean gaude", dio.

**Angel Fernandez 'El Torbellino'** > Toreatzaile eta boxeolari ohia

# "Zugatik apustu egingo duen inor barik ezin da arrakasta lortu"

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

**Castuera herrian jaioa (Badajoz, 1946) oso gazte egin zuen etxetik alde. Cordoba aldean hasi zen zezenen munduan sartzen eta gero boxeo borrokak iritsi ziren. Orduko argazki eta materialarekin osatutako erakusketa dago Arkupen, Udal Argazki Artxiboak antolatuta.**


'El Torbellino' Arkupeko erakusketa aretoan. M.A.

**Zer deritzozu erakusketari?**

Polita, nahiz eta argazki asko falta. Urtebete inguru ibili dira nire atzetik antolatu guran.

**Lehenengo zezenekin hasi zinen edo boxeoan?**

Zezenekin. 12 urte inguru nituenean etxetik alde egin nuen eta Kordobara joan. Algodoia jasotzen zuten kortijo baten hasi nintzen txankero lanetan, hau da, lanean dabiltzanei janaria eramaten eta gero mando-hezitzaile ere ibili nintzen. Peñaflor herri inguruan zezenak zituzten eta hantxe hasi nintzen bigantxekin.

**Oroitzapen politak dituzu?**

Politak bai, baina latzak ere bai; orduko bizimodua oso gogorra zelako. Zezenen aurrean asko arriskatu behar zen, dena eman. Garrotxa izeneko makilarekin salto egiten nuen zezen gainetik, behin apurtu egin zitzaidan eta izugarrizko kolpea hartu nuen. Eta halakoak zenbat. Nahiz eta txarto pasatu askotan, ezergatik ez nuke aldatuko orduan bizitakoa.

**Baina ez zenuen aurrera egin zezenen munduan, ezta?**

Lanbide horretan, beste edozeinetan moduan, zugatik apustu egingo duen jendea behar da; oso ona izan zaitezke baina aukera bat emango dizunik ez badago alferrik da. Gogoan dut Madrilera joan nintzela aukera baten bila, eta han 300 edo 400 lagun elkartu ginela. Lehenengo zeudenak hautatu zituzten, tartean Palomo Linares, eta besteoi agur.

**"Madrilera joan nintzen aukera baten bila eta han 300 edo 400 lagun elkartu ginen"**

**"Mafia bat zen boxeoaren mundua; borrokak irabazi eta nulu ematen zizkidaten"**

Aretxabaletan elkarte edo peña izan nuen Toki Ona tabernan. 100 bazkidetik gora zituen elkarteak eta Salamancara bigantxekin ibiltzera joateko ni dirua jartzen zuten. Baina kontua ez zen ondo atera eta desegin egin zen. Orduan Valentziara joan izan banintz…

***El Torbellino* izena noizkoa da?**

Herriz herri zezenekin nenbilenekoa, egurra ematen nuelako jarri zidaten.

**Eta gero boxeo munduan sartu zinen.**

Bai, 17 urte ingururekin hasi nintzen Bartzelonan eta gero hemen jarraitu. Lehenengo borroka Arrasateko Iturripen egin nuen eta irabazi. Gero, Laudion, Donostian… eta Arrasaten sarri; profesionaletara pasatzeko zorian egon nintzen.

**Eta noiz utzi zenuen?**

Ez dut gogoan, baina azkenean haserre bukatu nuen. Mafia bat zen boxeoaren mundua, borrokak irabazi eta nulu ematen zizkidaten eta utzi egin nuen. Lehen zaletasun handiagoa zegoela uste dut, eta boxeolariek guztia ematen zuten ring gainean.

**ARETXABALETA** > ORDENANTZA FISKALAK

# Ibilgailuen gaineko zerga %4 igoko dute

## Zainduz gimnasioko kuota hilerokoa izango da urtarriletik aurrera eta saunan sartzeko ez da ordaindu beharko

**M.A.** > ARETXABALETA

Eguenean, hilak 7, egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zituen udalbatzak ordenantza fiskalak, hau da, Udal tasa eta zergen gaineko aldaketak. Gobernuak egindako proposamena aho batez onartu zuten gainerako alderdiek –EAJko zinegotziak ez ziren egon–.

**JARDUERA EKONOMIKOAK GORA**

Ondasun higiezinen gaineko zergaren igoera –bai etxebizitzei, bai lurrei dagokiena– %3koa izango dela aurreikusi du Udalak. Izan ere, Eudelek proposatu du katastroaren balorea %2,01 igotzea eta Aldundiak onartuz gero %3an geratuko da igoera. Etxe salmentaren ondorioz ordaindu beharreko gainbalioa ere %3 igoko dute; baita hiri izaerako balio erantsiaren zerga ere.

Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga ere %3 igoko diete enpresei. Gainera, Udalaren asmoa da datorren urtean zergen ikuskaritza egingo duen enpresa bat hartzeko lehiaketa deitzea. Hala, enpresek iruzurrik egiten duten zergak ordaintzeko orduan jakingo dute.

**ZAINDUZEK HILEROKO KUOTA**

Igoerarik handienetakoa ibilgailuen tasak izango du; 14 zaldi fiskaletik gorako ibilgailuen jabeek %4 gehiago ordaindu beharko dute. Ibilgailu hibridoek, ostera, %50eko murrizketa izango dute. Etxeko obren tasak ez du igoerarik izango eta zaborra KPI igotzea proposatu zuten –mankomunitateak esaten duenaren zain–. Uraren igoera, ostera, %0,7koa izango da.

Bestalde, Zainduz gimnasioko kuotak aldaketa izango du; urtekoa beharrean hileroko kuota jarriko dute urtarriletik aurrera: norbanako abonua dutenak, 7,50 euro hilean; abonu familiarra dutenak, 9,50 euro; eta abonu murriztua dutenak –ikasleak…–, 4,80 euro. Eta sauna erabiltzeko ez da gehiago ordaindu beharrik izango.

Udalaren asmoa da aurten baino gehiago jasotzea zerga bidez, batez ere kirol etxearen mailegua ordaintzen joateko. Dena dela, beste herri batzuetan baino baxuagoa dela presio fiskala –zergek estutzea herritarrak– aipatu zuten.


Ilargi plazan dagoen Zainduz gimnasioa. M.A.

**ESKORIATZA** > TAXIEN TARIFAK

# Taxien tarifak %1,7 igotzea onartu du udalbatzak

## Bi tarifei eragingo die igoera horrek: lan egunetakoari; eta gau eta jai egunetakoari

**M.A.** > ESKORIATZA

Gipuzkoako taxi gidarien elkarteak egindako igoera proposamena aho batez onartu zuen Eskoriatzako udalbatzak irailaren 29an egindako osoko bilkuran. Elkarteak proposatu zuen %1,7 igotzea oraingo tarifak datorren urtean.

Bi tarifa dauzkate ezarrita: batetik, lanegunetakoa –astelehenetik egubakoitzera, 07:00etatik 22:00etara–; kilometroa 1,0063 euro izango da eta itxaron beharreko ordu bakoitza, 19,2186 euro.

Bestetik, gauetakoa eta jai egunetakoa dago –gauetan 22:00etatik 07:00etara eta zapatu, domeka eta jai egunetan 07:00etatik 22:00etara–; kilometroa 1,6050 euro izango da eta itxaron beharreko ordu bakoitza, 30,2114 euro.

> IKUS-ENTZUNEZKOA

### Otxoa de Oltzaren gaineko filma eguaztenean

Annapurna mendian hil zen Iñaki Otxoa de Oltza mendizale nafarraren gainean egindako ikus-entzunezkoa botako dute eguaztenean, hilak 13, kultura etxean (19:00). Aitzorrotz kultura elkarteak antolatu du ekitaldia eta Otxoa de Oltzaren lagun Jorge Nagorek aurkeztuko du.

2008ko maiatzean hil zen Otxoa de Oltza, Annapurnan, 7.400 metrotara. Hark utzitako arrastoa handia izanik, orduko erreskate lanean eta mendizale nafarren gaineko filma egin dute gero.

BASABE
jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel.: 943 77 07 94
Aretxabaleta

Hirusta
Jatetxea
Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA



Eskolako txikienak Arantzazun izan ziren aurreko astean. ELGETAKO HERRI ESKOLA

**ELGETA** > HEZKUNTZA

# 5. eta 6 mailetakoak ingeleseko barnetegian

Guraso elkarteak eguenean (hilak 7) egin zuen ikasturte hasierako batzar orokorra

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Ikasturteko berrikuntzetako bat ingeleseko barnetegia da. Gaur bertan abiatu dira 5. eta 6. mailetako 15 neska-mutikoak Orio aldera. Bost egun egingo dituzte Kells College barnetegian. Bertan, ingelesa trebatzeko aukera izango dute Eusko Jaurlaritzaren programa baten bitartez.

**GURASOEN BATZAR OROKORRA**

Guraso elkarteak, berriz, eguenean egin zuen ikasturte hasierako batzar orokorra. Kargu aldatzeak egiteaz gain, hainbat gai izan zituzten mahai gainean. Ohiko ekintzak egingo ditu aurten ere guraso elkarteak, eta ingeleseko eskolak eskainiko ditu eskolaz kanpoko jarduera moduan. Berrikuntzen artean dago urrian egitekoa den matematikako terminologia euskaraz ikasteko ikastaroa. Gainera, eskolako ume bakoitzari txandal bana erosiko zaio ikasturte honetan, denendako berdina. Neurriak eskatu behar dira, eta jakinarazi dute modeloak ikusgai ipiniko dituztela eskolako sarreran, ume bakoitzak berea eska dezan.

**INFORMAZIOA INTERNET BIDEZ**

Bestetik, elkartearen gaineko informazioa aurrerantzean Internet bidez bidaltzeko aukera aztertuko dute. Hala, informazio hori posta elektronikoaren bitartez jasotzeko interesa duten gurasoek elkarteak eskolako sarreran duen postontzian utzi beharko dute euren helbide elektronikoa.

**GURASOAK BATZARRETAN**

Berrikuntzen artean, aipatu behar da guraso elkarteak ordezkariak izango dituela Udaleko Hezkuntza, Kirol eta Jai batzordeetan. Gurasoen interesekoak diren gaiak landuko dituztenean bidaliko dituzte ordezkariak batzar horietara.

**ARAMAIO** > KULTURA

# 'Larru haizetara' antzezlana barikuan kultura etxean

Txirritola euskara elkarteak antolatu du antzerki emanaldia; Mikel Martinez eta Patxo Telleria aktoreak dira protagonistak

**E.M.** > ARAMAIO

Txirritola euskara elkartearen eskutik, barikuan, urriaren 15ean, *Larru haizetara* antzerki emanaldia izango da kultura etxean, 22:00etan. Ez Dok Hiru Biko Teatro konpainiak ekarriko du antzezlana eta sarrerak 2 eurotan salduko dituzte. Patxo Telleriak sortutako antzezlana da eta, Aitor Mazoren zuzendaritzapean, Mikel Martinez eta Telleria bera izango dira agertokian. Haien hitzetan: "Euskaldunon bizitza sexuala aitzakia hartuta, barrea eragitea da helburua eta nahiko estilo zoroa duen antzezlana dela esango genuke. Sexu-terapia kolektibo bat ere izan daiteke". Martinezek eta Telleriak urteak daramatzate bikote artistiko moduan eta berbaldi motz eta zirikatzaileak dira haien ezaugarrietako bat.

**PINTURA LEHIAKETA BIHAR**

Aramaioko margo lehiaketaren 19. ekitaldia jokatuko da bihar, martitzena. Izenematea 9:00etatik 11:00ak bitartean egin beharko da. Irabazleak 700 euro jasoko ditu. Parte hartzaileei bazkaria emango zaie 14:30ean.



Mikel Martinez eta Patxo Telleria, antzezlaneko irudi baten. GOIENKARIA

**ANTZUOLA** > OSOKO BILKURA

# Udalbatzak onartu egin du abere hiltegi elkartea osatzea

Zatiketa gela jarriko da martxan; egokitu eta arautu egin beharko dute

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

Udalbatzak aldeko bederatzi botorekin onartu zuen –PSE-EEko zinegotzia abstenitu egin zen eta Udal Gobernuko bat ez zen joan– Zubillagako hiltegia kudeatuko duen elkarte publikoa sortzeko araudiari hasierako onespena ematea.

**ZERBITZU PUBLIKOA**

Zubillagako hiltegiaren zerbitzu publiko eta jarduera ekonomikoaren zuzeneko kudeaketa tokiko merkataritza sozietate baten bitartez egitea da asmoa. Pedro Iturbe alkateak azaldu zuen zerbitzu publikoa izan behar dela, baina era berean merkatuan parte hartu behar duela.

Hala, bideragarritasuna ardatz hartuta etorkizuneko hiltegia izango dena osatzeko konpromisoa hartu dute.

**ZATIKETA GELA MARTXAN JARRI**

Urtarrilaren 1ean elkarte publikoa martxan jarri gura dute. "Zerbitzu publiko bera eskainiko du, eta, horrez gain, zatiketa gela jarriko da martxan", azaldu zuen Iturbek osoko bilkuran. Horretarako, gela egokitu egin beharko da eta arautu. "Uste dugu zatiketa gelak diru sarrera gehiago ekarri dizkiola hiltegiari", dio Iturbek.

**BEDERATZI LANGILE**

Asmoa da sozietate publikoa autofinantzatua izatea. Izango du: gerentea, administraria, lineako arduraduna eta sei abere-hiltzaile. Garraiolariak azpikontratatuak izango dira.

Paco Morcillo sozialista abstenitu egin zen Debagoieneko sozialistek oraindik ez dutelako gai hori landu.

**LEINTZ GATZAGA** > IZENEMATEA

# Auzo-egurra eskuratzeko zozketarako izenematea eguaztenean itxiko dute, hilak 13

Udaletxean eman behar dute izena interesatuek eta ondoren jakinaraziko diete noiz izango den zozketa

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Baso publikoetako egurra gura duenak udaletxean eman behar du izena eguaztenerako, hilak 13. Izena emandakoen artean zozketa egingo dute gero, zein gunetako lotea hartu erabakitzeko. Zozketaren data zehaztu barik daukate, baina interesatuei aurrez jakinaraziko diete bertan egon daitezen.

**ESKAERAK BEHERA**

Aspaldiko ohitura da Gatzagako baso publikoetan dagoen egurra herritarren artean banatzea, nahiz eta azken urteotan nabarmen egin duen behera eskaerak. Horretarako, gutxienez urtebetez herrian erroldatuta egon behar dute eskatzaileek eta jasoko duten egurra derrigorrez herrian bertan erabiltzeko izango da.

Aldundiko basozainek erabakitzen dute urtero basoko zein gunetako egurra har dezaketen eskatzaileek, loteak esaten diete horiei. Izena emandako eskatzaile kopuruaren arabera egiten dituzte loteak eta zozketa bidez izendatu gero. Behin lotea emandakoan, eskatzaile bakoitzak bota, txikitu, jaso eta ekarri egin behar du basotik egur hori.

# Kirola



**> ATLETISMOA**
Asier Cuevas eta Ainhoa Landinez Arrasate-Oñatin azkarrenak **> 22-23**



**> FUTBOLA**
Idiazabalen bisitaren aurrean (2-1) garaipen garrantzitsua Bergarak **> 24**

**> JOSEBA FRUTOS**
Eskoriatzako auto-gidaria lan ona egiten dabil aurten. Gatzagan podiumera igo zen eta slalomean aurrean dabil Frutos **> 27**





Xakelariak lehenengo jardunaldia hasteko gertu; lehenengo taulan, ezkerrean, Alejandro Franco madrildarra, eta eskuman haren kontrario Cesar Montolio. JOSETXO ARANTZABAL

# Ezustekoekin hasi da Arrasate Hiria txapelketa

**FABORITOAK ONDO**
Alejandro Francok eta Iñigo Argandoñak ez zuten kale egin

**GAZTEAK INDARREZ**
Asier Etxagibel eta Erlantz Miguelezek eman zuten sorpresa

**10. EDIZIOA**
Arrasate Hiria txapelketak 10 urte beteko ditu aurten

**IRATI GOITIA** > ARRASATE
Nahiz eta Alejandro Franco eta Iñigo Argandoña faborito nagusienek irabazi, izan ziren ustekabeak Arrasate Hiria xake txapelketako lehen jardunaldian, egubakoitzean. Izan ere, faborito batzuek berdindu, eta beste batzuek gorriak ikusi zituzten puntuak batzeko. Esaterako, David Astasiok azken unean lortu zuen garaipena, eta ibarreko gizon indartsu Fran Miguelek berdindu egin zuen.

Miguelek ez zuen lortu tauletatik pasatzea Asier Etxagibel Arrasateko klubeko harribitxiaren kontra. Hala ere, ezusteko aipagarriena Isidro Ruizek eman zuen Andoni Miguel, sailkapeneko bosgarrena garaituta.

**USTEKABEAK, SEINALE ONA**
Ustekabeak txapelketan dagoen maila onaren adierazle direla esan digu Josu Tornay antolatzaileak: "Partida konplikatuak ikusi ditugu lehen tandan". Hala, gazteak indartsu datoz; faboritoen artean dabiltza-eta Euskadiko txapeldun diren Etxagibel eta Ruiz, euren mailetan. Bestalde, Mikel Alkaide taldekidea ere maila onean dagoela azpimarratu du Tornayk.

**SISTEMA SUITZARRA**
Hala ere, lehiak azaroa bitarte iraungo du eta oraindik ez da ezer erabaki. Izan ere, sistema suitzarraren arabera jokatzen da txapelketa; eta, beraz, lehen edo bigarren partida galduta ere, posible da txapela janztea.

**FINALA, ARAZOAREN 12AN**
Egubakoitzean hasitako lehiak azaroaren 12an izango du garailea. Izan ere, azarora bitarte beste bost tanda jokatuko dituzte egubakoitzero arratsaldeko 19:00etan Arrasateko San Andres Xake Taldearen egoitzan. Finala berriz, Arrasateko Udaleko osoko bilkuren aretoan jokatuko dute. Ateak zabalik izango dira lehiaz gozatu nahi duenarentzat.

**Josu Tornay** > Antolatzailea

## "Urteurrena izanda ere, ez dugu aparteko ospakizunik egingo"

**I.G.** > ARRASATE
**Arrasate Hiria xake txapelketaren 10. urteurrena ere ez da krisitik libratu, horren gainean egin dugu berba antolatzaile Josu Tornayrekin.**



I.G.

**Aurtengoa 10. edizioa da. Zerbait berezia antolatu duzue?**
10. edizioa da, baina baita krisi garaia ere. Beraz, ez da gauza bereziren bat egiteko garai onena. Izan ere, aparteko zerbait egiteko diru gehiago behar da, eta, zoritxarrez, egun, hori ez dago soberan. Hala ere, mantendu ditugu sariak eta hori garrantzitsua da; jendea txapelketara erakartzeko beharrezkoak baitira.

**Krisi garaian, zelakoa da xakearen egoera?**
Egoera ona da, zalantza gabe. Aretxabaletako xake taldeak ohorezko mailan jokatzen du eta guk Gipuzkoako preferente mailan. Gainera, hiru talde ditugu txapelketetan lehian. Nik uste dut maila ona dugula bailaran.

**ATLETISMOA** > ARRASATE-OÑATI

# Asier Cuevas da Arrasate-Oñatiko errege berria

## Eibarkoak bosgarren aldiz irabazi du 27 urte bete dituen proba

## Emakumezkotan Ainhoa Landinez elgoibartarra izan zen azkarrena

**XABIER URTZELAI** > OÑATI

"Niretako Arrasate-Oñati lasterketa Gipuzkoako lasterketa herrikoien artean klasikoetako bat da, erreferente bat urteak korrika daramatzagunondako, eta pozten naiz gaurko proban horrenbeste jende elkartu izana", adierazi zuen helmugan ibilbideko 11,7 kilometroak egiteko 36.17ko denbora behar izan zuen gizonak, dagoeneko, Arrasate-Oñati lasterketako errege den Asier Cuevasek.

Errege diogu, Eibarko korrikalaria delako 27 edizio bete dituen Arrasate-Oñati proban bost garaipen eskuratu dituena, *speaker* lanetan ibili zen Aratz Losadak ondo esan moduan, "Diego Gartzia handiaren lorpenak gainditu dituena".

**KONTRARIO BARIK**

Lasterketa Portaloian hasi eta lehenengo metroetatik Cuevasek erritmo gogorra ezarri zuen; Roberto Ruiz gasteiztarra bakarrik izan zen hura jarraitzeko gauza, baina gorriak pasa zituen. Cuevasek ez zuen erreleborik behar, eta Ruiz ez zegoen errelevoak emateko, ez behintzat erritmoa jaitsi barik. Hala, hasiera gogorraren ostean Cuevas lasaitu egin zen apur batean, kontrarioari baino bidelagunari arnasa hartzen utzi zion –eta tarteka ura eman ere–, eta oñatira iristear zirenean Cuevasek abisua eman zion Ruizi: "Aurrera noa". Esan eta egin, Eibarrekoa bakarrik helmugaratu zen (36.17), bigarren izan zen Ruiz (36:46), eta hirugarren Aitor Uribesalgo elorrioarra (37:22).

Apur bat atzerago, laugarren postuan iritsi zen lehenengo oñatiarra, Yerai Varela. Hura ere erritmoa jartzen joan zen lasterketa osoan, baina proba amaieran onartu zuen azkenerako ibilbidea luze egin zitzaiola, beste distantzia batzuetan korritzen dabilelako, Oñatikoa oraindik pistako denboraldian mugilduta dabil-eta.

Emakumezkotan, berriz, Elgoibarrera joan zen lehenengo postua, Ainhoa Landinez izan zen-eta azkarrena (47.02). Lehia estua izan zuen etxeko korrikalari Mari Sol Ramosekin –Oñatiko azkarrena–, Landinez Ramos baino zortzi segundo azkarragoa baino izan ez zelako (47.10). Eta, hirugarren sailkatu zen Arrasateko emakumezko azkarrena izan zen Ane Zabala (48.24).

DATUA

**300**

**KORRIKALARI**

Zapatuan 300 korrikalari animatu ziren Arrasate-Oñati lasterketa egitera. Proba maiatzetik urrira pasatu izanak lagundu du horretan, Behobia-Donostiarako entrenamendu aparta delako.

**ANTOLATZAILEEN LAN ONA**

Txalotzekoa da azken urteotan Arrasate-Oñati aurrera ateratzeko izan diren zailtasunen aurrean –edizioren bat ez da egin– Oñatiko Antxintxiketan taldeak eman duen erantzuna: "Guretako erronka handia da, urtean antolatzen dugun laugarren lasterketa delako. Baina, jendeak erantzun egin du, 300 lagun inguruk eman dutelako izena, eta badirudi lasterketa eguna maiatzetik urrira pasatzea erabaki ona izan dela, jendea Behobia-Donostia prestatzen dabilelako", adierazi zuen lasterketa aurretik taldeko ordezkari Aratz Losadak.

Lasterketa hasi aurretik antolatzaileak urduri zebiltzan, dortsalekin arazoak izan zituztelako: "Barkamenak eskatu nahi ditugu dortsalak banatzerakoan negargarri ibili garelako. Izena internetez eman dutenen dortsalak gainontzekoekin nahastu ditugu, eta konturatu garenerako hanka-sartzeak ez zuen soluziorik".

**HURRENGOA, SORALUZE-BERGARA**

Debagoienean egingo duten hurrengo lasterketa Soraluze-Bergara lasterketa izango da (10km), azaroaren 6an egingo dutena. Antxintxika triatloi taldeko lagunek aldatu egingo dute irteera puntua, eta baita ibilbideko zati bat ere, zailtasun fisikoa dutenek ere lasterketa egin ahal izateko.



Asier Cuevas, lasterketako protagonista, Oñatiko Foruen plazara iristen, abantaila politarekin.

KORRIKALARIEN IRITZIA



**Asier Cuevas**
Eibar

"Test bat egin gura nuen, benetan zelan nagoen ikusteko, eta orain arte ez dut horretarako aukerarik izan. Hala, Arrasate-Oñati lasterketa erabili dut horretarako, eta pozik nago emaitzarekin".



**Yerai Varela**
Oñati

"Hasieratik indartsuenek berehala egin dute aurrera, eta bigarren taldetxoan joan naiz ni, tira egiten. Gogorra egin zait, oraindik pistan gabiltzalako, eta hamabi kilometro distantzia luzea da".



**Miren Azpiroz**
Donostia

"Senarra oñatiarra da, eta hark eta lagun batek animatuta hartu dut parte proban. Oso lasterketa polita da, baina luzea egin zait, hori da egia, eta gainera, bero galanta pasa dut".



**German Aginagalde**
Oñati

"Oso lasterketa polita izan da, eta baita gogorra ere, Zubillagara iritsi eta handik Oñatiraino aldapa gora delako. Pena bakarra da ibilbidean zehar ez dagoela Oñatin besteko ikusle".



**Gurutze Ansa**
Oñati

"Elorregitik Oñatira aldapa gora dago, eta hori igarri egiten da, baina ondo amaitu dut. Bero egin du, baina gutxienez, goizeko haize gogorra apur bat baretu da, eta hori eskertu dugu".



Emakumezko azkarrena, Ainhoa Landinez, helmuga gurutzatzen (47.02). J.A.


J. A.



Arrasateko Portaloian korrikalariak lanean hasteko gertu. XABIER URTZELAI


Miren Azpiroz, Zubillagan, laguntza apur batekin. X.U.


Mari Sol Ramos, oñatiar azkarrena. J.A.


Lasterketako protagonistak, –Arrasateko eta Oñatiko azkarrenek ere saria izan zuten– udal ordezkariekin. X.U.


Eroski pareko biribilean, korrikalariak Elorregira bidean. J.A.

**OHOREZKO ERREGIONALA** > BOSGARREN JARDUNALDIA

# Domeka arratsaldeko onena eguraldia izan zen...

Bi minutuetan bi gol jaso zituen Aloña Mendik; hala, partidua erabakita utzi zuen Real Unionek

Datorren astean derbia izango da ibarrean: Mondra-Aloña Mendi, Mojategin jokatuko dute

ALOÑA MENDI
**0-5**
REAL UNION

**Aloña Mendi** > Zabaleta, Bernal, Agirre, Idigoras, Palacios, Arregi I, Arregi II, Agirre, Juaristi, Mendoza eta Olalde.

**Real Union** > Etxepare, Ferradas, Ferradas (60. min. Badia), Subiza, Gebara (68.min. Stival), Gomez, Infante (80.min. Sagredo), Ordoñez, Vazquez (78.min. Aizpurua), Arostegi (75.min. Madina) eta Arrospide.

**Epailea** > Palencia jauna. Laguntzaileak izan ziren Palencia II eta Mondin.

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI

Ahazteko moduko partidua eta ahaztu beharrekoa izan zen atzo Aloña Mendik Azkoagainen jokatu zuena. Ikustera joan zirenendako partidu benetan negargarria.

Etxeko taldeak gogotsu irten zuen zelaira; eta, lehenengo 10 minutuetan irudi ona eman arren, behin gola jasotakoan behera etorri zen. Izan ere lehenengo laurdenean utzi zuten irundarrek partidua erabakita. Bi minututan bi gol sartu zituzten: 12. minutuan, korner baten ondoren Ordoñezek; eta, 13. minutuan, Arrospidek.

**ATSEDENERA LAU GOL JASOTA**

Azkenaldian gol asko jaso ditu Aloñak kornerretan; bada, atzo ere horrela jaso zituen bi gol. 34. minutuan, Ordoñezek 0-3 jarri zuen markagailuan, korner baten ondoren. Laugarrena Infantek sartu zuen aldageletara joan baino bost minutu lehenago.

**BALOI GUZTIETARA, ATZETIK**

Oñatiarrek atzo ez zuten euren egun onena izan. Baloi guztietara berandu iritsi ziren, bizitasuna falta izan zuten. Hala, baloiaren jabetza irundarrek izan zuten uneoro. Oinarekin hobeak izan ziren, eta baita buruarekin ere.

Bigarren zatian irundarren erasoa eusten ahalegindu ziren oñatiarrak. Hala ere, bosgarrena jaso zuten, 75. minutuan.

Pablo Diez entrenatzailea oso haserre zegoen jokalariek zelaian erakutsitakoarekin; eta, hasirako hamaika jokalariak zigortzeko modua izan zen partiduan zehar aldaketarik ez egitea.

**MONDRAREN AURKAKO DERBIA**

Datorren astean Mondraren aurka jokatuko du Aloñak; Mojategin izango da derbia.



Roberto Idigoras lurrean, etsita. JOSETXO ARANTZABAL

> OHO. ERREGIONALA

### UDAk banako berdinketa lortu zuen Tolosaren aurka

Puntu bakarra ekarri zuen Aretxabaletak Tolosatik zapatuan. Ligako bosgarren jardunaldian UDAko jokalariek bana berdindu zuten. Tolosa B ligako talde handietako bat da; hala, Aretxabaletarekin batera berdinduta dago zortzi punturekin. Tolosa B laugarren postuan eta UDA bosgarrenean.

Orain arte jokatutako bost partiduetatik bi irabazi ditu UDAk, bi berdindu eta bakarra galdu. Datorren astean, Berioren bisita izango dute Ibarran. Kontuan hartu etxean Mondraren aurka galdu egin dutela asteon Berioko mutilek.

> ERREGIONAL PREFEREN.

### Erritmoa hartu eta bigarren partidua irabazi du Antzuolak

Juanina Garairen mutilek martxa ona hartu dute. Bigarren astez jarraian irabazi egin dute; oraingoan, etxetik kanpo. Antzuolak 0-2 irabazi zuen Intxurreren aurka zapatuan.

Denboraldi hasieran partiduz partidu joatea eta partiduez gozatzea zela helburua esan zuen Garaik. Bada, uste baino hasiera hobea eman diote denboraldiari. Bost partidu jokatu eta bi irabazi, bi berdindu eta bakarra galdu dute. Sailkapeneko bosgarren tokian daude, zortzi punturekin. Datorren astean Orioko hartuko dute etxean.



JOSETXO ARANTZABAL

### Jokalari bat gutxiagorekin egon arren Bergarak irabazi egin zuen

Partidu bikaina jokatu zuten mahoneroek zapatuan. Hasieratik ondo hasi ziren, baloia atzetik ondo atera eta jokaldi onak egiten. Aukerak izan arren, baina, ez zuten golik egin lehenengo zatian. Gainera, aldageletara joan aurretik, epaileak Martin Ibañez egotzi zuen, taldea 10 jokalarirekin utziz. Bigarren zatia hasi eta 5. minutuan Idiazabalek 0-1ekoa egin zuen. Bergararrak baina ez ziren makurtu. Unai Agirrek buruz egin zuen banakoa eta Iñigo Machok garaipenaren gola egin zuen.

**OHOREZKO ERREGIONALA** > MONDRA

## Orain arteko partidu onena eginda irabazi du Mondrak Berioaren aurka

Atsedena baino bost minutu lehenago Enrique Tenak egin zuen lehenengo gola; bigarrena Lander Andresek egin zuen

**A.E.** > ARRASATE

Arrasateko taldeak partidu ona egin zuen zapatuan. Esfortzu izugarria egin zuten jokalariek eta horrek bere saria izan zuen amaieran. Berioren aurka 0-2 irabazi zuten Iban Rodriguezen mutilek. Entrenatzailea oso pozik zegoen taldekideekin eta haren ustez urteko partidu onena izan zen zapatukoa.

Ondo hasi zuten lehia. Defentsa ona eginda kontraerasoan irteteko aukerak izan zituzten arrasatearrek. Hala, atsedenera iristeko bost minutu falta zirela Enrique Tenak lehenengo gola egin zuen.

**BIGARRENEAN, EUTSI**

"Etxetik kanpo irabazten zoazenean bigarren zatiko lehenengo 20 minutuak erabakigarriak izaten dira", azaldu zuen Rodriguez entrenatzaileak. Horregatik, atzean ondo eutsi zuten arrasatearrek. Azkeneko minutuetan Berio gora igo zen eta aukera hori aprobetxatu zuten arrasatearrek kontraerasoan gola egiteko. Lander Andresek egin zuen bigarren eta azken gola.



X.U.

## Euskadi Xtrem BTT Oñatira iritsi zen

350 lagunek parte hartu dute Euskadi Xtrem BTT proban, baina denak ez dira helmugara iritsi, seguru. GR38 ibilbidea egin dute, ardoaren eta arrainaren bidea, Laguardia eta Lekeitio artean. Zapatuan Laguardia eta Oñati arteko ibilbidea egin zuten –126 kilometro–; eta, atzo, domeka, Oñati eta Lekeitio arteko 78 kilometroak.

> ESKUBALOIA

## Arrasateko Ford Mugarrik eta Soraluze BKEk galdu egin dute ligako bigarren jardunaldian

Ez da jardunaldi ona izan ibarreko taldeendako. Euskadiko txapelketan, Ford Mugarrik 31-28 galdu zuen Sucesores Agirreren aurka; eta, Soraluce BKE-k 32-30 galdu zuen Estudios Gis taldearen aurka.

Josetxo Muniategi Bergarako entrenatzaileak azaldu du partidu kaskarra jokatu zutela, akats askokoa. Partidu amaitzeko lau minuturen faltan bi gol atzetik ziren bergararrak, eta baloia alde zuten. Baina ez ziren partidua berdintzeko gauza izan.

**SASKIBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Defentsa gogorrari esker irabazi zuen MUk etxean

Ligako bigarren jardunaldian, MUk 81-61 irabazi zion La Salleri; Aloña Mendik ere irabazi egin zuen etxean Ardoiren aurka: 71-52, hain zuzen



Moratxo saskiratzea egiten. JOSETXO ARANTZABAL

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Hasi dira arrasatearrak mailari neurria hartzen. Zapatuan, Iturripen, irabazi egin zuten; gainera, joko ona eginda. La Salleren aurka 81-61 nagusi ziren Larreategiren mutilak.

Hasieratik jaun eta jabe izan ziren etxeko jokalariak. Batez ere, defentsa gogorrari esker aurreratu ziren markagailuan. Lehenengo laurdena amaitu zen 24-13ko emaitzarekin.

**LARREGI FIDATU ZIREN**

Bigarren laurdenean larregi fidatu ziren etxekoak; hori dela-eta La Sallek tartea murriztu zuen: 37-31. "Bigarren laurdenean taldeak behera egin du eta arazoak izan ditugu", azaldu zuen Josu Larreategi entrenatzaileak.

Bigarren zatian, baina, taldeak erritmoa hartu zuen eta arazo barik gailendu ziren. Larreategi pozik zegoen jokalariek egindako lanarekin: "Talde gaztea izanda, jokalariek egiten duten esfortzua nabarmenduko nuke. Esperientziarik ez dute, baina ahal duten guztia egiten dute".

**ALOÑA MENDIK ERE IRABAZI**

Sustrai Aloña Mendik 71-52 irabazi zion Ardoiri zapatuan Zubikoan. Markagailuak erakusten duena baino gehiago sufritu behar izan zuten oñatiarrek partiduko bi puntuak lortzeko. Izan ere, azkeneko laurdenean erabaki zen norgehiagoka. Modu honetan, orain arte jokatutako bi partiduak irabazi ditu Aloñak.

## Futbola

### OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Hernani** | **12** | 5 |
| 2. **Real Union** | **10** | 5 |
| 3. **Oiartzun** | **10** | 5 |
| 4. **Anaitasuna** | **9** | 5 |
| 5. **Tolosa** | **8** | 5 |
| 6. **Aretxabaleta** | **8** | 5 |
| 7. **Trintxerpe** | **8** | 5 |
| 8. **Mondra** | **7** | 5 |
| 9. Aurrera **Ondarroa** | **7** | 5 |
| 10. **Pasajes** | **7** | 5 |
| 11. **Hondarribia** | **7** | 5 |
| 12. **Bergara** | **6** | 5 |
| 13. **Idiazabal** | **6** | 5 |
| 14. **Aloña Mendi** | **6** | 5 |
| 15. **Ordizia** | **5** | 5 |
| 16. **Berio** | **4** | 5 |
| 17. **Zumaiako** | **4** | 5 |
| 18. **Roteta** | **1** | 5 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Berio-**Mondra** | 0-2 |
| **Aloña Mendi-**Real Union | 0-5 |
| Hondarribia-Anaitasuna | 0-2 |
| Trintxerpe-Aurrera Ondarroa | 1-1 |
| Roteta-Ordizia | 0-0 |
| Zumaiako-Hernani | 0-1 |
| Oiartzun-Pasajes | 1-0 |
| **Bergara-**Idiazabal | 2-1 |
| Tolosa B-**Aretxabaleta** | 1-1 |

**Hurrengoak**

**Mondra-Aloña Mendi**
Pasajes-**Bergara**
**Aretxabaleta-**Berio

### BESTE KATEGORIAK

| | |
|---|---|
| **GAZTEEN LIGA NAZIONALA** | |
| Aretxabaleta-Zarautz | 2-2 |
| **GAZTEEN EUSKAL LIGA** | |
| Abetxuko-Bergara | --- |
| **ERREGIONAL PREFERENTEA** | |
| Aretxabaleta-Urnieta | 2-0 |
| Intxurre-Antzuola | 0-2 |
| Mondra-Euskalduna | 0-1 |
| **LEHEN ERREGIONALA** | |
| Soraluze-Bergara "B" | 4-0 |
| Eibartarrak-Aretxabaleta "C" | 1-0 |
| **GAZTEEN OHOREZKO MAILA** | |
| Beasain-Mondra | 4-1 |
| Burumendi-Aloña Mendi | 2-3 |
| **GAZTEEN LEHEN MAILA** | |
| Aretxabaleta "B"-Urki | 1-2 |
| Eibartarrak -Arizmendi UDA "B" | 12-0 |
| Arizmendi-Bergara "B" | 5-0 |
| **KADETEEN OHOREZKO MAILA** | |
| Bergara-Anaitasuna | 2-3 |
| Lagun Onak-Arizmendi | 3-0 |
| **KADETEEN LEHENENGO MAILA** | |
| Bergara "B"-Aretxabaleta "B" | 1-4 |
| Aloña Mendi-Aloña Mendi "B" | 3-0 |
| Ilintxa-Arrasate | 1-1 |
| **EMAKUMEZKOEN LIGA** | |
| Arizmendi-Mutriku | 2-0 |
| Mondra-Anaitasuna | 6-1 |

## Eskubaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **EUSKADIKO SENIORRAK, GIZON.** | |
| Sucesores de Agirre-Ford Mugarri | 31-28 |
| El Pilar-Soraluce BKE | 32-30 |
| **LEHEN TERRITORIAL MAILA** | |
| Tolosa-Arrasate | 25-25 |
| **BIGARREN TERRITORIALA** | |
| Izarraitz Aloña-Urnietako | 29-26 |
| **GAZTEEN GIPUZKOAKO TXAPELKETA** | |
| Bergara-Aloña Mendi | 13-36 |
| Egia-Aloña Mendi | 24-17 |
| **KADETEEN GIPUZKOAKO TXAP.** | |
| Egia Igoa-Chapime Arrasate | 27-21 |
| Soraluce BKE-Arrasate | --- |
| Berezao Aloña Mendi-Usurbil | 21-24 |
| **KADETE NESKEN GIPUZKOAKO TXAP.** | |
| Bartolo-Aloña Mendi | 15-17 |
| Aloña Mendi B-Urnietako | 22-20 |
| **KADETEEN GIPUZKOAKO TX. EMAK.** | |
| Bartolo-Aloña Mendi "A" | 15-17 |
| Aloña Mend "B"-Urnietako | 22-20 |

## Saskibaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **LEHENENGO MAILA** | |
| Aloña Mendi-Ardoi | 71-52 |
| MU-Lasallle | 81-61 |
| **KADETE, NESKAK** | |
| Eskoriatza-Bera Bera | 38-31 |
| **SENIOR EMAKUMEZKOAK** | |
| Erroibide Irun-Eskoriatza | 43-52 |
| **KADETE, NESKAK** | |
| Eskoriatza-Bera Bera | 38-31 |
| **SENIOR GIZONAK** | |
| MU-Kevian Sport | 41-53 |
| **SENIOR BIGARREN MAILA** | |
| Soraluce BKE-Baskoplastika | 64-53 |
| **KADETE, NESKAK** | |
| Eskoriatza-Bera Bera | 38-31 |
| **KADETE, MUTILAK** | |
| Mondragon Unib. A-Take Tovar | 57-53 |
| **INFANTIL MUTILAK** | |
| Soraluce BKE-Take | 46-42 |

## areto futbola

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **EUSKAL LIGA** | |
| Eskoriatza-Sasikoa | 3-3 |


Harmailatik
Debagoieneko kirola GOITBn
Astelehenero 20:45ean eta 22:30ean
Goitb Goiena Telebista
Ikustekoa!



# UDAKO ARGAZKIEN
# VI. GOIENA LEHIAKETA



**Argazki guztiak fotoblog honetan:** ***www.goiena.net/blogak/argazkiak***

# Banatu ditugu sariak

Banatu ditugu udako argazkien VI. Goiena lehiaketako sariak. Lara Gonzalez arrasatearrak irabazi du lehen saria, *Ispiluaren aurrean* argazkiarekin. Argazkia ikasgelako Arantza lagunari atera zion ispilu aurrean urarekin aurpegia busti da eta freskatzen. Bigarren saria Idoia Iturralde aretxabaletarrak eskuratu du, *Duomo plaza* argazkiari esker; Milango Duomo plaza ezagunean atera zuen argazki artistikoa. Eta hirugarrena Miguel de Ganesha arrasatearrak. Argazkigintza eta artea ditu gustuko eta hori irudikatu du *Artea* argazkiarekin.



1



2



3



## SARI NAGUSIA

Lara Gonzalez arrasatearrak irabazi du sari nagusia: argazki-kamera digital bikaina, **KB Photoestudio** argazki-dendak eta Canon etxeak eskainitakoa, eta KB Photoestudiok emango dituen ikastaroetako batean %50eko deskontu bonua. Dendako **Bibi Anduezak** eman zion saria. Iaz ere lehiaketan parte hartu zuen, baina ez zuen irabazi, eta aurten animatu egin da berriro; ezustea hartu du lehiaketa irabazita. Oso pozik dago sariarekin, asko gustatzen zaio-eta argazkilaritza.

## 2. SARIA

Aretxabaletako Idoia Iturraldek irabazi du bigarren saria, Kantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevaran aste bukaera bateko egonaldia bi lagunendako, gosaria eta zapatuko afari berezia barne. Milango Duomo plaza ezagunean atera zuen argazki artistikoa ekainean. Lehen aldia da Idoiak parte hartzen duela lehiaketan baina oso gustuko du argazkiak ateratzea, bereziki paisaiak. Sari hau pozik hartu duela esan digu Idoiak. **Arrasate Bidaiak**-eko Amanda Sanchezek eman zion saria.




## 3. SARIA

Miguel de Ganesha arrasatearra izan da hirugarren sariduna. Argazki lehiaketa baten parte hartzen duen lehen aldia da. Gatzagako **Gure Ametsa** jatetxean afari eder bat irabazi du Miguelek, ilunabarra modu artistikoan islatzen duen lanari esker. Argazkian, Migueli saria ematen agertzen da Gure Ametsako jatetxeko Marisa.




**Babeslea:**

gizarte kutxa

**Laguntzaileak:**

kb photoestudio
www.kbphotoestudio.com
Canon

GURE AMETSA
JATETXEA

ARRASATE BIDAIAK

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Goiena.net

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Goitb
Goiena Telebista

ARRASATE IRRATIA

**Joseba Frutos** > Auto-gidaria

# "Gatzagako igoera berezia izan zen etxean ibili nintzelako, lagunen aurrean"



Joseba Frutos, Citroen ZX autoaren ondoan. ARANTZAZU EZKIBEL

ARANTZAZU EZKIBEL > ESKORIATZA

**Joseba Frutos eskoriatzarrak urtebete daroa autoen munduan. Aurten, oso denboraldi polita egiten dabil; hainbat podium egin ditu, tartean Gatzagako igoeran junior onenaren saria irabazi zuen. Iaz, esaterako, Euskal Herriko txapelduna izan zen junior mailan slalomean. Aitor anaia izaten du laguntzaile.**

**Bi lasterketa falta zaizkizu denboraldia amaitzeko. Gustura zaude aurten egindakoarekin?**

Bai, nahiko ondo joan da denboraldia. Lasterketa baten edo bestean autoak huts egin digu, baina orokorrean gustura nago egindako denboraldiarekin. Lasterketetan nire anaia Aitorrekin parte hartzen dut.

**Sailkapenari begira, podiumean ikusi zaitugu behin baino gehiagotan.**

Bai, lan ona egin dugu eta podiumean izan gara behin baino gehiagotan. Junior mailan ibili naiz.

**Auto berezia behar da junior mailan lehiatzeko.**

Citroen ZX GT autoa daukat, 1.400 zentimetro kubikokoa. Izan ere, juniorra izateko 1.600 zentimetro kubiko baino gutxiagoko motorra izan behar duzu eta 1986a ondoren jaiotakoa izan.

**Gatzagako lasterketan podiumera igo zinen. Orain arteko lasterketa garrantzitsuena izan dela esan daiteke?**

Bai, noski. Hemen, herrian –Eskoriatza–, izan zen eta lagun guztiak izan nituen animuak ematen.

**Zure ustez, ze berezitasun dauka Gatzagako lasterketak?**

Herrian izatea da, nire ustez, berezitasun nabarmenena. Bestalde, lasterketaren tramuari begiratuta, bihurgune politak dituela esango nuke.

**Eta gero, herrian jasotako harrera izugarria izan zen!**

Bai, bai... jendea oso ondo portatu zen. Herrikoa izanda, lagun guztiek animuak eman zizkidaten.

**22 urteko atsedenaren ondoren egin da berriro lasterketa. Zuk ezagutu ere ez zenuen egingo!**

Ez, ez... orain dela 22 urte egin zen azkenekoz; hortaz, nik ez dut ezagutu Gatzagako lasterketa. Entzuna nuen, eta horregatik gogo handia neukan Gatzagan jokatzeko.

**Noiz hasi zinen autoen munduan?**

Iaz hasi nintzen, Mungian. Eslaloma egin nuen, eta esango nuke gogoan daukadan oroitzapen onenetarikoa dela lehenengo lasterketa hura.

Beti ibili izan naiz anaiarekin. Eslalometan ondoan izaten dut eta igoeretan bakarrik ibiltzen naizen arren, laguntzen ibiltzen da anaia.

**Non ibiltzen zara lasterketetarako entrenatzen?**

Hemen inguruan ez dagoenez zirkuiturik, Mirandako zirkuitura joaten gara. Normalean hara joaten gara autoa probatzera, eta baita Olaberrira ere. Inguruan ez dago beste ezer.

**Zaletasun garestia dela esango zenuke?**

Bai, bai, oso garestia da. Hala ere, autoari norberak eginez gero aldaketak, asko aurrezten da. Baina zerbait gertatuz gero eta tailerrera eraman beharra baldin badago, oso garestia da.

**Zer esaten dizute etxean?**

Betikoa esaten didate. Baina, egia esan, eurek ere gustuko dute motorren mundua eta asko laguntzen didate. Gure etxean motorrak beti egon dira.

LEHENENGOA

**"Orain dela urtebete hasi nintzen, Mungian, eta oso oroitzapen ona daukat"**

ZALETASUNA

**"Zaletasun garestia da, batez ere autoa tailerrera eraman behar baldin bada"**

INGURUKOAK

**"Pilotua ez da bakarrik ibiltzen; inguruan jende asko dabil eta haiei eskerrak eman gura dizkiet"**

**Pilotu moduan zein esango zenuke dela zure alde onena?**

Zaila da nork bere burua azaltzea, baina esango nuke autoa erabiltzen naizela ona.

Bestalde, ikasi beharko nuke lasterketetara lasaiago joaten. Oso urduri jartzen naiz.

**Debagoienean jende asko ibiltzen da autoekin eta motorrekin. Zer-nolako maila dagoela esango zenuke?**

Maila ona dago gure inguruan. Gainera, Miranda aldera jende asko joaten da entrenatzera hemendik. Esango nuke jendeak esku ona daukala autoan ibiltzeko.

**Horrenbeste piloturen artean, baduzu jarraitzen duzun norbait?**

Oso gustuko dut Txus Jaio bizkaitarra. Euskal Herri mailan hura da jarraitzen dudan pilotua.

**Esan duzu oraindik bi lasterketa geratzen zaizkizula denboraldia amaitzeko. Non ikusiko zaitugu hurrengo lasterketan?**

Hurrengoa izango da Barakaldon jokatuko den eslaloma eta denboraldiko azkena izango da Azpeitiko proba.

Orain, Urrakiko igoera dago, baina ez dut parterik hartuko.

**Eslalomaren eta igoeraren artean ze ezberdintasun dago?**

Eslalomak egiten dira aparkalekuetan; zirkuitu estiloko bat egiten da, eta horretarako apropos jarritako hainbat oztopo gainditu behar izaten ditugu; adibidez, hesiak edo piboteak.

**Lantaldeak ematen duen laguntza eskertu gura duzu.**

Bai, esan gura dut ez dela pilotua bakarrik probak jokatzen dituena. Pilotuaren inguruan jende asko ibiltzen da lanean eta haien laguntza ezinbestekoa da lasterketak aurrera eramateko.

**HEZIKETA** > NERABEZAROA

# Teknologia berriek ere menpekotasuna sor dezakete

'Menpekotasun ez toxikoa' esaten diote eta adituek ohartarazten dute gero eta zabalduagoa dagoela; gehienbat, nerabeen artean



Makina batekin jokoan. JAULADEARDILLA

**LARRAITZ ZEBERIO** > ARRASATE
Adituek adi egoteko ohartarazi dute, batez ere seme-alaba gazteak dituzten gurasook. Sare sozialak, txatak, Internet... aukera handiak ematen dituzte, eta oso erraza da ezezagunekin harremanetan jartzea. Baina umeendako desegokiak diren edukiak ere eskura egon ohi dira eta kontuz ibili beharra dago. *Consumer* aldizkarian Alicia Lopez de Fernandez psikologoak dio gazteek eta nerabeek arrisku talde bat osatzen dutela. "Adin horretan sentsazio berrien bila ibili ohi dira eta Internetera gehien konektatzen direnak dira. Teknologia berriekin oso ohituta daude, baina, aldi berean, heldutasun maila txikiko erabiltzaileak dira".

**HARTU BEHARREKO NEURRIAK**
Ez da gomendagarria seme-alabek ordenagailua edo bideo-kontsola gelan edukitzea. Oso zaila da egiten duten erabilera neurtzea. Adituek, gainera, gomendatzen dute jarduera horiei eskainitako denbora nolabait mugatzea eta seme-alabekin adostea. "Aukera hobea da egunean ordubeteko saioa egitea eta ez egun berean zazpi orduz konektatuta egotea". Zenbait webgunetara sarrera mugatzeko programa bereziak ere badaude. Erabili egin behar direla diote adituek.

**OSASUNA** > EZTARRIKO MINA

## Faringitisaren sasoian gaude bete-betean

**L.Z.** > ARRASATE
Hotzarekin handitu egiten da arnasbideak hozteko arriskua, eta birusak ere errazago heltzen dira gune horietara. Hala, udazkenean aski ezaguna da umeen artean faringitisa.

Faringitis mota bakoitzak bere sendabidea izaten du. Birus bidezkoa bada, minari eta sukarrari aurre egiteko analgesiko edo min-kentzaile sistemikoak erabili behar dira. Bakterio bidezkoa bada, berriz, antibiotikoa errezetatuko du sendagileak.

**BETIKO SENDABIDEAK**
Atseden hartzea, likidoak hartzea eta elikagai arinak hartzea dira gomendio nagusiak. Eztia sendagai natural ona da eztarrirako. Propoli-espraiak eta mendazki-espraiak ere oso modan daude. Ezaugarri antiseptikoak eta antibiotikoak dituztela esaten da. Aholku gehiago *guraso.com*-en.

**OSASUNA** > BOTIKAK

## Ohiko akatsak umeei botikak ematerakoan

**L.Z.** > ARRASATE
Umeendako bereziki egindako botika gutxi daude merkatuan, eta, sarri, zaila izaten da gaixo dagoen ume bati botika modu egokian ematea. Oso zabaldua dagoen ustea da errezetarik gabe eskura daitezkeen botikak kalterik gabekoak direla. Ez da horrela: behar baino parazetamol gehiago emanda intoxikatutako umeen kasuak ugari dira.

**KONTUAN HARTZEKOAK**
Botika eman aurretik umearen pisua eta tenperatura jakin behar dira. Xiringa edo dosifikagailuak erabili behar dira, goilarak eta antzerakoak saihestuz. Argia dagoen leku batean neurtuko dugu botika kantitatea, eta ez ilunpean, umearen logelan. Haurrak okerrera egiten badu ez dugu gure kaguz dosia handituko. Sendagilearengana joan behar dugu.

**OSASUNA** > BIZKARRA

## Ez ditugu umeen zorroak askorik zamatu behar

**L.Z.** > ARRASATE
*Consumer* aldizkarian irakurri dugu: 13 eta 15 urte arteko mutilen erdiak eta nesken %70 bizkarreko minez egonak dira behin edo behin. Adituek diote ez direla eskola-umeen esku-zorroak edo orgatxoak haurrak duen pisuaren %10etik gora zamatu behar.



Umeak eskolara sartzeko zain. JULIE 70

**EGOKIENA, BIZKAR-ZORROA**
6 urtetik gorako hiru ikasletik batek bere pisuaren %35 eramaten du bizkarrean. Haur txikietan ez da hain ugari agertzen bizkarreko mina, baina 10 urteak bete ondoren, gero eta gehiagok izaten dute. Hori dela eta, Kovacs fundazioak eta Erakunde Mediku Kolegiatuak kanpaina egingo dute aurten ere gazteen artean. Prebentzio-aholkuak zabaldu dituzte adingabeentzat.

Ikasmateriala eramateko modu asko daude: esku-zorroetan, orgatxoetan, soinean gurutzatzeko zorroetan edo poltsetan, baina horiek guztiak baino egokiagoa da bizkar-zorroan eramatea. Ikasleek ez dute ariekta fisikorik egiten, eta, ondorioz, bizkarreko muskuluek indarra galtzen dute eta mina jasateko arriskua handitzen da.

Ikasmahaian eta ordenagailu aurrean nola jarri ikastea da beste ikasgai garrantzitsu bat. Bizkarraren gaineko *www.espalda.org* webgunea oso interesgarria da. Bertan hainbat aholku baliagarri aurkituko dituzte gurasoek gai horren inguruan.



Mutikoa, gaixorik. STEFAN

> HEZIKETA KIROLA

### Ia oharkabean pasa den arren, kirol heziketarako denbora murriztu egin dute; eztabaida hor dago

Eusko Jaurlaritzak murriztu egin du derrigorrezko hezkuntzako ikasleek eskola ordutegian kirol heziketari eskaintzen dioten denbora; orain arte astean bi ordu baziren, gaur egun ordu eta erdi da. Kirol hezkuntzako irakasleen iritziz, krisiaren babesean hartutako neurria da eta kaltetuei guztiz arrazoitu gabekoa. Oñatiko Herri Eskolako irakasle Borja Moiuaren ikuspuntua entzungai dago *guraso.com* webgunean.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> AZKAITER PELOX**
Musikari bergararrak Kai tabernaren urteurren jaian bere disko berriko piezak jo zituen > 30



**> HERNANDEZ GOGOAN**
Miguel Hernandez idazleari buruzko ikus-entzunezkoa, eguenean Aretxabaletan > 31



**> ITXARO BORDA**
Baionako idazlearekin egon gara solasean: postari lana, Iparraldeko kontuak... > 40

**Ignazio Arregi** > Jesuita eta kazetaria

# "Historia kontuan hartu behar da orainari eta geroari begiratzeko"

TXOMIN MADINA > ARRASATE

**Ignazio Arregik (Oñati, 1931) *Eta orain, zer?* izeneko liburua argitaratu berri du. Jesuita eta euskal irratigintzaren aitzindarietako bat, bere esanetan orain arte egindako ibilbidearen errepasoa da bere liburua, etorkizunera begira egiten duen errepasoa.**




Alberdaniak kaleratu du liburua.

**Argitaratu berri duzun liburua autobiografia ez dela diozu, egindako ibilbidearen errepasoa baizik.**

Halaxe da, asmoa ez zen autobiografia bat egitea, baina uste nuen nire adin ingurukook geure bizimodua kontatu beharko genukeela, ez geure barruko gauzak kontatzeko, ezagutu eta ikusi ditugunak kontatzeko baizik. Esaten den bezala, *historia est magistra vitae*, hau da, historia dela gure maisua, eta hori kontuan hartu behar da orainari eta geroari begira jartzeko orduan.

**Kazetaritza eta erlijioa izan dira zure bizitzan ardatz. Horiek dira liburuaren ardatzak?**

Hiru izan nire ikuspegiak: hasteko, euskalduna, oñatiarra naizela; bigarren jesuita eta apaiza eta azkenik, kazetaria. Hiru ikuspegi horietatik ezagutu dudan errealitatea kontatzen dut.

**Euskalduna, oñatiarra izateak, ze pisu dauka?**

Badauka bere garrantzia, jakiteko zer nolakoa zen gure bizimodua, kasu honetan, Oñatin: kaleko giroa, eskolakoa, familiakoa... Alor horietan edo politikan, ekonomia eta erlijioan egon diren aldaketez jabetzeko du garrantzia.

**70 urtetan asko aldatu dena, gizartearen eta erlijioaren arteko harremana da. Nola ikusten duzu hori?**

Gertaera asko egon dira, tartean, Vatikanoko Kontzilioa, batzuen iritziz, azkarregi joan dena eta beste batzuen iritziz, oraindik behar bezala bete ez dena; eztabaida gogorra dago. Horretaz gainera, gizarte aurreratuetan, baita gurean ere, egon diren aurrerapenak ikusita gizartea harroputz bihurtu da, uste erlijio gabe ere bizi daitekeelako. Hori ez da horrela eta atzera begira, gizarteak hutsuneak egin ditu: nork iragarri zuen komunismoaren porrota, nazioarteko terrorismoaren sorrera, sortaldeko herrialdeen arteko gatazkak edo egungo krisialdia? Herri aurreratuek funtsezko zenbait kontutan ez dute asmatu, eta uste dut hortik datorrela Elizarentzat benetako hausnarketa sakona egiteko arrazoia.

**Itzuliko gara lehengora?**

Fede aldetik begiratuta ala gertatuko da, biblian badaude arrazoiak pentsarazten digutenak zurrunbilo honen ondoren gauzak zuzenduko direla eta Elizak aurrera egingo duela. Gainera, oraingoak baino egoera larriagoak pasa ditu Elizak. Gainera, erasoak Eliza katolikoaren kontra doaz, ez Jainkoaren edo ebanjelioaren kontra.

**Nola ikusten duzu euskal elizaren egungo egoera?**

Oso ondo ikusten dut euskal eliza, jakina da eredugarria izan dela. Orain kili-kolo dago apur bat, eztabaida gehiegi dago. Baina hierarkia kolore bateko izan arren, eliztarren artean aniztasun handia dago, eta nik uste dut sekularrek izango dutela gero eta paper handiagoa. Aniztasuna, munduan barna, Elizaren beraren ezaugarri bat da. Nola lotu ezinbesteko den batasuna eta ezinbestekoa den autonomia? Zaila izango da beti, baina baita oso interesgarria ere.

**Kazetaritzan, Loiola Irratian, Euskadi Irratiaren hasieran eta Vatikano Irratiko informatiboetan ibili zara...**

Irratian egin ditudan hiru denboraldien oso oroitzapen onak ditut, denekin zorretan sentitzen naiz. Loiola Irratia paregabea izan zen, eta hori da irratia herriak egin zuelako, herriak bultzatuta. Euskadi Irratian, lehen aldiz Euskal Herrian gobernu batek irrati publikoa jartzeko modua izan zuen, eta hori pausu handi bat izan zen. Vatikanon, 20 urtetan zehar, egondako gauzarik interesgarriak bizi izan nituen: aita santuen heriotza eta izendatzeak, munduan zehar egindako bidaiak...

**Atzera begirako liburuari, aurrera begirako izenburua jarri diozu. Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Egoera zaila tokatu zaigu, mila arazo arlo askotan, mila galdera... Zer egin behar dugu, ito? Ez, ikasi eta aztertu egin behar dugu, datorrenerako prestatu.

> **"Hiru izan dira nire ikuspegiak: oñatiarra, apaiza eta kazetaria izatea"**

> **"Gizarte aurreratuetan, egon diren aurrerapenak ikusita, gizartea harroputz bihurtu da"**

> **"Irratian egin ditudan hiru denboraldien oso oroitzapen onak ditut, zorretan sentitzen naiz"**

> **"Etorkizunera begira, ikasi eta aztertu egin behar dugu, datorrenerako prestatu"**



Ignazio Arregi jesuita eta kazetari oñatiarrak liburua atera berri du. T.M.

**KRONIKA** > KAI TABERNAREN URTEURREN JAIA

# Lagun arteko festa Pelox eta konpainiarekin

**TALDEAK:** Azkaiter Pelox, Tobaco Road eta Rafael & Rodrigo.
**NON:** Bergarako Kai tabernan.
**EGUNA:** Egubakoitza, urriak 8.
**ZENBAT JENDE:** 40 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Lau ordu inguru.



Azkaiter Pelox, egubakoitzeko kontzertuko protagonistetako bat. Disko berria atera du bergararrak. JOSETXO ARANTZABAL

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Azken etapa berri honetan urteteko ibilbidea bete du Bergarako Kai tabernak, eta hori ospatzeko lagunarteko jaia iragarri zuten egubakoitzerako tabernako arduradunek, Jose Minerrek eta Anak. Ohiko bezeroak eta kanpotik musika entzunda gero hara gehitu ziren bestelako zaleak elkartu ziren bertan.

Festari hasiera emateko, Azkaiter Pelox saltsero ezaguna. Tabernako arduradunaren omenez, 20 bat urte duen kamiseta historikoarekin aurkeztu zen gainera. Disko berria atera du bergararrak, *Azkaiter Pelox & The Road Band zuzenean* izenburukoa, uztaila aldera Laino tabernan grabatutakoa. Hamar kantu batu ditu bertan eta 10 euroren truke eskura daiteke diskoa, ohiko tokietan. Zuzenekoetan behinik behin berotasuna ezin zaio ukatu Peloxi: kontzertua hasteaz bat, Kai tabernan batutako lagunak animatzen hasi zen eta kantuak eta anekdotak tartekatu zituen ordu eta erdi luzatu zen emanaldian. *Harrapatu ezineko harribitxia*, *Ixiltasuna apurtzen*, *Zure begietako diztira*, *Brand new Cadillac*, *Orratzen dantzen menpean* edota *Irtenbiderik gabeko autobideak* (Mahaster River taldearekin aurretik grabatutakoa) dira azken diskoan batutako kantuetako batzuk eta horiek izan ziren emanaldiaren ardatza. Kanpotik ikusita behintzat, Azkaiter Peloxek inprobisazioari tarte zabala eskaintzen diola ematen du. Sorpresei ere bai; egubakoitzean, esaterako, *The Godfather* filmeko ("Aitapuntakoa" haren esanetan) soinu bandako doinuak edota Neil Diamonden *Girl, you'll be a woman soon* kantu ezaguna ekarri zituen besapean. The Black Eyed Peas taldearen *I gotta feeling* ezagunaren bertsioa egitera ere ausartu zen, bildutakoen gozamenerako. Lagunak gertuan, eroso eta gustura zebilela argi laga zuen eta ordu t´erdi luzez jardun zuen gitarra, aho-soinua eta ibilbide luzeko danborrarekin. Orkestra gizon berria, zalantzarik ez.

**TOBACO ROAD, GASTEIZTIK**

Tobaco Road gasteiztarrek hartu zuten Azkaiter Peloxen lekukoa. Anti (gitarra elektrikoa) eta Txitxo (gitarra akustikoa) bikoteak hamar urte egin ditu elkarrekin eta bi hilabete barru lehen diskoa kaleratzeko asmoa daukate. Blues zaharra dute gustuko eta diskoko kantuak jo zituzten nagusiki. Lehen aldia zen Kai tabernan jotzen zutela eta gustura jardun zutela esan zigun Txitxok.

Brasilgo doinuek ere protagonismoa behar zuten derrigor tabernaren jaian eta Rafael & Rodrigo bikotearen eskutik iritsi ziren hango sambak eta bestelako erritmo dantzagarriak, festari amaiera borobila ematеko eta arduradunak zoriontzeko.

**HURRENGOA, AZAROAREN 5EAN**

Kai tabernako arduradunek azaldutakoaren arabera, aurrerantzean ere hilabetean behin-edo emanaldi akustikoak antolatzen jarraitzeko asmoa daukate. Hurrengo hitzordua azaroaren 5ean izango da: Alex Del Hierrok eta Iñigo Etxeitak egingo dute emanaldia.

**ARGAZKILARITZA** > ERAKUSKETA OÑATIN

# Kultura arteko nahasketa iruditan

Fidel Raso eta Koro Cantabranaren argazkiak izango dira ikusgai kultura etxean, egubakoitzetik

**E.M.** > OÑATI

*Muga. Kultura arteko nahasketa* izenburuko argazki erakusketa zabalduko dute egubakoitzean, hilaren 15ean, Oñatiko kultura etxean. Fidel Raso (Sestao, 1953) eta Koro Cantabranaren (Orereta, 1966) argazkiak ikusi ahal izango dira. Biak ere informazio zientzietan lizentziatuak dira eta esperientzia zabala daukate argazki kazetaritzan.

Ceuta eta Melillan aterako argazkiak dira erakusketakoak eta hango kultur nahasketa islatzen saiatu dira egileak: komunitate kristaua batetik eta islamiarra bestetik; Afrikako iparraldean kokatuta egoteak ematen dien nortasun berezia; edota han entzun daitezkeen hizkuntza ezberdinak. Irudiekin batera erakusketan jarriko dituzten testuak Tamara Crespo kazetari bizkaitarrarenak dira. 2004. urtetik Ceutan dabil lanean, hango *El Faro* egunkariko erredaktore buru lanetan.

**AZAROAREN 24RA ARTE**

Oñatiko Ilunpetan argazkilari taldeak antolatu du kultur etxeko erakusketa eta datorren azaroaren 24ra arte izango da ikusgai.



JOSETXO ARANTZABAL

## The Kill Devil Hills, Australiako rock indartsua Arrasaten

Egubakoitzean Amaia antzokian batutakoek erabat gozatu zuten The Kill Devil Hills australiarrek emandako kontzertuarekin. *Man, you should explode* beraien hirugarren diskoa aurkezteko lehen aldia da Europan zehar bira egiten dutena eta, esan bezala, guztiz konbentzitu zuten Arrasateko audientzia. Ehun lagun inguru batu ziren Amaiako hall-ean. *Telonero*, James Cruickshank bakarlari australiarrak jardun zuen. Gaur, astelehena, Gasteizko Jimmy Jazz aretoan izango dira, 21:00etan.


Miguel Hernandez, ezkerretik lehen gizonezkoa, lagun talde batekin. GOIENKARIA


Hernandez. GOIENKARIA


Serratek musikatutako Hernandezen lanak entzungo dira eguenean. GOIENKARIA

**LITERATURA** > IKUS-ENTZUNEZKOA

# Miguel Hernandezen bizitzari errepasoa bere mendeurrenean

"Miguel hernandez, 100 años de presencia" ikus-entzunezkoa, eguenean Aretxabaletan

Jose Andres Alvaro Okariz irakaslearen ustetan, bere lanak egun ere indarra izaten jarraitzen du

**TXOMIN MADINA** > ARRASATE
Hilaren 30ean ehun urte beteko dira Orihuelan (Alacant) Miguel Hernandez poeta eta dramagilea jaio zela. Eta Hernandez bera izango da protagonista Aretxabaletako Arkupe kultur etxeko Zaraia aretoan eskainiko den ikus-entzunezkoan. Eguenean izango da hori, 19.30ean hasita.

**BIZITZA, MAITASUNA, HERIOTZA**
Jose Andres Alvaro Okariz filologo eta irakaslea da ikuskizunaren egilea eta azaldu digunez, hainbat elementu biltzen ditu: Alacanten, Hernandezen lurraldean ateratako 70 argazki inguru, poemak, Serratek eta Jarchak musikatutako piezak...

Hogeita hamaika urte zituela hil zen Hernandez; bizitza motza, baina intentsua Alvaro Okarizen esanetan: gaztetan ahuntzaina, Madrilera joan eta 27ko belaunaldiarekin harremanetan egon zen eta soldadu antifrankista ere izan zen. Bere lana definitzeko, Hernandezen poema bateko hasierako hiru hitz erabiltzen ditu, Hernandezen bateko hasiera: bizitza, maitasuna eta heriotza islatzen zuen poeta. Alacantekoaren lanek egun ere indarra dutela uste du Alvaro Okarizek: "Gizakiaren askatasuna, umeen esplotazioa...Horien inguruan idatzi zuen, gaurko eta atzoko gaiak dira, eta horregatik mantentzen da bere ahotsa".

MENDIA PROTAGONISTA

## Ikus-entzunezko gehiago asteon

Aretxabaletan ez ezik, Oñatin eta Eskoriatzan ere ikus-entzunezko gehiago antolatu dituzte aste honetan, eta biek ere mendia izango dute ardatz

Eskoriatzako kultura-etxean izango da lehena, asteazkenean 19:00etan. *Iñakiren ahotsa* izena de emankizunak, Jorge Nagorek aurkeztuko du eta bertan, 2008an Annapurna igotzen hil zen Iñaki Otxoa de Olza mendizalea izango da protagonista.

Oñatin, bestalde, *Al Himalaya en bicicleta* delako ikus-entzunezkoa emango dute eguenean, kultura-etxean, 19:00etan hasita. Aurora eta Ruben gasteiztarrek 2007 urtean egindako bidaiaren kronika kontatzen da bertan.



# Debagoieneko
# GREMIOAK



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
*www.goiena.net/blogak/azkarate*

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
*e.arrasate@euskalnet.net*

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## DEKORAZIOA

**J. ORTIZ**
Bergara
• Mota guztietako pladur lanak
• Igeltsu-lanen dekorazioa
• Sabai eta apaletan espezialistak
• Isolamendu akustikoa
• Gremioen koordinazioa
Alkabieta kalea z/g.
T: 943 76 03 51 / 663 90 93 18

## ITURGINTZA

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**IMANOL ITURGINTZA**
Arrasate
• Iturgintza
• Berogailua eta gasa
• Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
*f.oyanguren@ctv.es*

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 17 80 46

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIK**
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

**YOSU THERMIK**
Arrasate
• Lehio eta ate isolatzaileak
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko lehioak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

GURE TALDEAK

## Drakes




Ezkerretik eskuinera, Alex, *Pasku*, *Muru*, *Josh* eta *Lumbre*. DRAKES

# "Diskoko hamaika kantuak soinu onarekin jantzi ditugu"

Drakes oñatiarrek pop-rockean oinarritutako 11 kantu grabatu dituzte euren lehen diskoan: 'Si nos dejan, no keremos' salgai dago

Grabazioa Andoaingo Aeroson estudioan egin zuten Aitor Carraspedo teknikariarekin, eta esperientzia "ona" izan dela esan digute

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

**Drakes oñatiarrek *Si nos dejan, no keremos* diskoa kaleratu dute. 11 kantu grabatu dituzte, eta pop-rocka dute oinarri. Taldea 2002an sortu zuten. Lan berriaz egin dugu berba *Josh*-ekin, Alexekin, *Lumbre*-rekin, *Pasku*-rekin eta *Muru*-rekin.**

**Lehen diskoa kaleratu duzue. Gustura emaitzarekin?**

Egia esan, bai. Idatzitako kantuak gustuko genituen eta grabaziorako soinu ona gura genuen. Bi helburuak lortu ditugu.

**11 kantu grabatu dituzue. Zertan oinarritzen zarete letrak idazteko?**

Batez ere, gai sozialak lantzen ditugu: batzuetan modu serioan eta beste batzuetan umorearekin. Kritikak egiten ditugu, baina kritikaz aparte beste zerbait dagoela ere adierazi nahi dugu. Ez dugu ezer berririk esaten kantuetan, baina saiatzen gara modu ezberdin baten egiten.

**Non grabatu duzue diskoa?**

Andoaingo Aeroson estudioan grabatu dugu, Aitor Carraspedo teknikariarekin.

**Non eros daiteke diskoa?**

Oñatiko, Arrasateko, Bergarako eta inguruko herrietako tabernetan, Oñatiko Ibarrondo liburudendan eta Fnac dendetan.

**Taldea sortu eta segidan maketa grabatu zenuten *Kirrin*-ekin. Alde handia dago bi grabazioen artean?**

Lehen grabazioa ez zen profesionalegia izan, *Kirrin*-en etxean eta gure estudioan grabatu genuelako. Dena den, bagenekien grabatzea zer den, ez gara hutsetik hasi.

**Show Bussines taldearekin aurkeztu zenuten diskoa. Zer moduz aurkezpena?**

Oso pozik. Berez ez zen aurkezpenerako kontzertua izan behar. Oñatiko Kalean taldeak antolatutako jaialdia zen, baina diskoa egun batzuk lehenago jaso genuenez, aurkezpena egiteko aprobetxatu genuen. Gainera, ez da ohikoa Show Bussines eta Drakes elkarrekin ikustea; baina oso gustura egon ginen.

**Nolakoak zarete zuzenekoetan?**

Elkarrekin ondo pasatzen duten herriko bost *txorimalo* gara. Gainera, entzuleei gure musika helarazten saiatzen gara. Punk-rocka egiten duen taldeetako bat gara. Gure kantuen bidez istorioak kontatzen ditugu, eta ondo pasatzeko asmoarekin igotzen gara oholtzara.

**Taldea 2002an sortu zenuten. Nolako bilakaera izan duzue?**

Hasieran, *Lumbre*, *Arzu* eta *Pasku* hasi ginen. Handik gutxira *Josh* hasi zen gurekin baxujotzaile modura. Laukote izan ginen lehen maketa grabatu arte. Ondoren Alex etorri zen eta azkenik *Muru* batu zitzaigun *Arzu* ordezkatzeko.

**Danbaka lehiaketan entzuleen saria irabazi zenuten. Nola gogoratzen duzue une hura?**

Ilusio handia egin zigun. Sari polita izan zen, batez ere aukera askorik ez dugulako izan. Hala ere, hankak lurrean ditugu, eta badakigu sari hori, agian, beste talde askok merezi izan zutela.

**Nola ikusten duzue musikaren panorama Oñatin, Debagoienean...?**

Debagoieneko harri bakoitzaren azpian musikari bat dago. Azken urteotan talde asko sortu dira, eta horrek erakusten du gazteria bizirik dagoela. Debagoieneko egoera ez dugu oso ondo ezagutzen, baina Oñatikoa bai. Talde asko daude. Adibidez, EZ! eta Black River taldeek euren lanak kaleratuko dituzte laster. Askotariko musika estiloak lantzen dituzten taldeak daude. Harrobi sendoa dagoela uste dugu.



### Oñatikoak Aguraingoei eskolak ematen

Badira urte askotxo Oñatin Drakes taldea sortu zutela, baina nahiago izan dute diskorik grabatu aurretik kantuak denboraz mimatu eta borobildu. Hori, behintzat, ondorioztatzen dut nik.

Santo Grialek Espainian banatuko du euren lana, eta ez nau harritzen, La Polla taldeak bere garaian zabaldu zuen punk-rockpataterOaren ildoa, Aguraingo eskola deritzona, nota altuz gainditu dute-eta.

Punk-rocka da, melodia askokoa eta hitz kritikoekin, gustuarekin egindakoak, gainera.

Iker Barandiaran

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Abadiño.** Muntsaratz auzoan. 3 logela handi, 2 komun, sukaldea, egongela handi bat jangelarekin eta balkoi handia. Ganbara. Berriztatua eta berogailuarekin. Bizitzera sartzeko moduan. Negoziatzeko moduko prezioa. 667-88 23 38.

**Arrasate.** 54 m². Bi logela, egongela, sukaldea, komun bat, trastelekua eta igogailua. Deitu 667-95 31 09 telefonora.

**Arrigorriaga.** Etxea renfe geltoki, autobus geltoki, eskola, parkea eta polikiroldegien artean dago. Sarrera, sukaldea, egongela, hiru gela, bi bainugela eta ganbara ditu. Banakako gas naturala (ura eta berogailua). Altzariak barne nahi badituzue. Informazio gehiago: *http://go.to/arrigorriagaprezioa* 288.000 €

**Ataun.** San martin. Eraikin ia berri batean, 100 m²ko etxea salgai. Terraza, patioa, garajea, trastelekua, 280.000 €. 659-53 50 73

**Bergara.** Artzamendi kalean etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, bi komun eta balkoi handia. Eguzkitsua. 656 73 57 74

**Bergara.** Boni Laskurain kalean etxebizitza salgai. 90 m², ganbararekin, hiru logela, egongela, bi komun eta lehorlekua. Balkoi handia. 675 71 50 36

**Etxarri-aranatz.** Etxea errentan edo salga. 654-23 41 02.

**Gasteiz.** Etxebizitza salgai. Aldabe kalean, 80 m², 2 logela, egongela (25 m²), sukaldea, bainugela eta trastelekua. Leiho guztiak kalera (hegoalde eta mendebaldera), berriztatua, 4. Pisua igogailua eta guzti. Premiazkoa. 230.000 € 945-14 55 72 edo 695-72 52 74

**Lakuntza.** Horman sartutako armairudun hiru logela, sukalde jantzia, egongela, 2 komun, balkoi eta ganbara. Lurreko berogailua. 948-57 60 03 eta 608-77 68 41.

**Laredo (Kantabria).** Izugarrizko bistak dituen pisua salgai laredon hondartza ondoan. Urbanizazio pribatuan dago, berdegune askorekin, haurrentzako jolasguneak, tenis zelaia, saskibaloi zelaia, autoa garbitzekoa... Puntaleko zonaldean kokatua. Hall zabala, egongela eta jangela zabalak, bi bainugela osatu, 4 logela bakoitza bere armairu enpotratuarekin, sukaldea, elektrogailu berriekin osatua, ur beroa eta gas naturalarekin dabilen berogailua. 2 igogailu eta atezain zerbitzua. Ezin obeto dago bizitzera sartzeko. Partikularra. Deitu 690-07 15 72 telefono zenbakira. Informazio pertsonala ematen dut.

**Mañaria.** Pisua salgai 90m2, hiru logela, bi komun, egongela-jangela eta sukalde guztiz jantzia (labe pirolitikoa, bitrozeramika, garbigailu-lehorgailua). Altzariz hornitua. Miradorea eta bista ikusgarriak. 13 m2ko trastelekua. Eraikinak 15 urte ditu, eta igogailua du. Bisitzera sartzeko prest. Prezioa: 220.000 euro. Aukera oso ona! Deitu 646-67 50 51 telefono zenbakira

**Oñati.** Etxaluzen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela-egongela, lau logela, bi bainugela, bi balkoi, ganbara eta garajea. 647 24 80 02

**Orio.** Donostiatik 10 minutura A-8ko irteera berritik. Etxe ederra eta goxoa: 100 m2; 2 logela bikoitza eta 32 m2ko saloia, dena haritzezko tarima zabalarekin, sukalde handia, bainugela, terraza eta trasteroa etxean bertan (ikus planoa). Azkeneko solairuan dago eta ganbara handia ere badu (25 m²koa) hurrengo pisuan. 330.000 euro *etxegoxoa.com*. 639-20 27 64.

**Urnieta.** 100 m2-ko 5 urtedituen etxebizitza berria salgai garaje eta trastelekuarekin. Etxea altzariekin hornitua saltzen da. Sukaldea (lehen mailako elektrogailuekin) 3 logela, 2 komun eta egongela zabala. Prezio interesgarria. Dena 330.600 euro. Deitu 616-57 98 28 telefono zenbakira.

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.
- LOKALA SALDU/ALOKATU.
- GARAJEA SALDU/ALOKATU.
- MOTORRA SALDU/ALOKATU.

**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 20,50 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 21€ + BEZ.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 28 € + BEZ.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Villabona.** Ia berria, 7 urteko etxea. 2 logela, 2 komun (bat logela baten barnean), sukaldea elektrogailu guztiekin eta egongela. Berogailua. Igogailua. Argitsua da, eta kanpoaldera begira dago, komunak izan ezik. 2 balkoi. 265.000 €. Garaje itxia aukeran, 40.000 €. Deitu 639-94 37 70 telefono zenbakira.

**Zegama.** Goierrin, landa turismorako berritutako baserri bat salgai (100 m2ko hiru solairu). Biko 6 logela bainugelekin, eta norberarentzat apartamentua -sarrera propioarekin-. Bikain hornitutako sukaldea.10.000 m2ko lur saila. Salmenta premiazkoa denez, prezio egokia dauka. Deitu 13:00etatik 15:00etara 658-73 51 75.

### 102. EROSI

**Arrasate edo inguruetan** 120.000-150.000 euroko etxebizitza erosi nahi dut. 615 71 04 68.

### 103. ERRENTAN EMAN

